

GUaiXE.eus



Suteak, han eta hemen izan ditugu



Sakanerria >> 8

Iharraren festak gaur hasiko dira. Heldu den astean lekukoa hartzeko prest daude Ziordia, Etxeberri eta Hiriberri



Sakanerria >> 2/6

Euskaltegi garaia da

Nafarroako euskara zerbitzuek euskaltegietan izena ematera animatzeko kanpaina egin dute

Euskarak lotura estua du hitzokin: gozamina, hurbiltasuna, prakti-kotasuna, transmisioa edo balioa

Mank-ek euskara ikasleendako diru-laguntza deialdia egiten du urtero. >> 5



Otsoportilloko ekitaldia hamar udalen artean antolatuko dute aurrerantzean.

Artzain egunean sakandarrak sarituak

Gazta txapelketan sei onenen artean ibarreko hiru eta txakurren proban 3. postua

>> 6

Azkargorta, Olatzagutiko alkate berria

>> 9

Otsoportilloarako dei bateratua

>> 7

Gaixo dauden presoen alde manifestaziora deitu du AEMK

>> 8



Osasunako entrenatzailea eta jokalaria Lakuntzan >> 13



Landa artea, Aralarren sortutako 6 lan ikusgai >> 14

SAKANA
Itsasi AEK euskaltegia

Gartzia Ximenez 46
ALTSASU
948 468 258
sakana@aek.eus

DIRU-LAGUNTZAK/ BECAS

Sakanako Mank: BEKAK

aek euskara praktikoa

100% AFECTIVO

Eman izena **Maticulate**

ZORION agurrak

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!

Argazkiak emateko lekua: • Altsasu: Foru Plaza 23-1 • zorion@guaixe.eus
• Ordainketa, Guaixeren bulegoan edo ondoko kontu zenbakian egin daiteke:
3035 0018 47 0181012564

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!



Leihoen, ateen eta kontraleihoen fabrikazio eta muntaketa • Balkoien eta terrazen itxitura • Kolore guztietako mallorkinak • Konpromezurik gabeko aurrekontua

info@dekovenavarra.com • www.dekovenavarra.com
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia • ALTSASU
Telf./Faxo: 948 468 360 • Telefono mugikorra: 690 641 860



Irailak

2-8

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.eus

Oihan Aldaz Herrero
ZORIONAK gure etxeko txapeldunari!
Egun ona pasa eta muxu handi bat zure Urdaingo familiaren partez.

Maia eta Leire
ZORIONAK zuen urtebetetzean!! Segi hain alai eta maitakor. Muxu asko.



Aimar Lazkoz Ruiz
ZORIONAK ederra!
6 urte dagoeneko! Seittu guai arte bezain alai ta zoriontsu. Muxu pila bat familia guztiaren partetik.

Nagore Ruiz de Galarreta Comin
Irailaren 6an 4 urte!!
ZORIONAK aiton-amonara eta osabaren partez. Muxu asko maitea!!

Egoi Perianez Higuero
ONGI ETORRI!
Poztasunez bete gaituz! Musu handi bat zure familiaren partez eta beste musu bat June-arentzat!

Musika

Jo & Swiss Knife. Irailaren 8an, ostegunean, 19:30ean Etxarri Aranzako plazan.

Antzerkia

El florido pensil, niñas. Irailaren 4an, larunbatean, 19:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean. **Ttanttaka.**

Bizikleta irteerak

Altsasu-Olaberría-Altsasu. 82 km. Irailaren 3an, larunbatean, 9:30ean Altsasuko Baratzeko bide plazako lokomotoratik. **Zikloturista taldea.**

San Lorenzo ermita. 44 km. Irailaren 4an,

domekan, 9:00etan Altsasuko Zumalakarregi plazatik. Barranka txirridulari taldeko mendi bizikleta taldea.

Erakusketak

Festetako kartel lehiaketa. Irailaren 10era arte, 10:00etatik 14:00etara, Altsasuko Iortia kultur gunean.

Bestelakoak

Garagardo azoka. Irailaren 2an eta 3an ostiralean eta larunbatean, 19:30etik 3:00etara eta irailaren 4an, domekan, 19:30etik 00:00etara Altsasuko Zubeztia plazan. **Zubiondo elkarte.**

365 egun euskaraz bideoaren grabaketa.

Irailaren 3an, larunbatean, 19:00etan Irurtzongo igerilekuan. **Aizpea.**

Deialdiak

Euskal Presoak Euskal Herrira! Irailaren 2an, ostiralean, 20:00etan Arbizuko eta Etxarri Aranzako plazetan, elkarretaratzeak.

Preso gaixoak kalera! Amnistia osoa! Irailaren 3an, larunbatean, 19:00etan Etxarri Aranzako plazan. **AEM.**

Otsoportillo 1936-2016. 80 urte gogoan. Irailaren 4an, igandean, 12:00etan Urbasako Otsoportilloko lezean.

Euskal Presoak Euskal Herrira! Irailaren 4an, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

FESTAK

IHABAR

>> Irailak 2, ostirala

19:00etan Txupinazoa, trikitalariek alaituta.
20:00etatik 22:00etara Dantzaldia Gabenara taldearekin.
22:00etan Herri afaria.
1:00etatik 4:30era Dantzaldia Gabenara taldearekin.
4:30ean Ingurutxua eta tapia gaineko jota.

>> Irailak 3, larunbata

13:00etan Otamena.
Pilota partidak.
14:00etan Kaldereteak pilotalekuan.
18:00etan Ginkana.
20:00etatik 22:00etara Dantzaldia Trikitiens taldearekin.
22:00etan Herri afaria.
23:30ean Txep taldearen kontzertua.
1:00etatik 4:30era Dantzaldia Trikitiens taldearekin.
4:30ean Ingurutxua eta tapia gaineko jota.

>> Irailak 4, igandea

12:00etan Meza, Donezteberen omenez.
13:00etan Otamena.
Argazki erakusketa.
Jotak, habanerak eta rantxerak Grupo Solidarioekin.
14:30ean Ihabarko ingurutxoa.
Herri argazkia.
17:00etan Mus txapelketa.
18:00etan Txapel jaurtiketa eta beste.
20:00etatik 22:00etara Dantzaldia Mikel Salaberrirekin.
22:00etan Zezensuzkoa.
22:15ean Parrilada.
23:00etan Dantza-mugi.

>> Irailak 5, astelehena

12:00etan Haurrendako jolasak.
13:00etan Otamena.
14:30ean Paella-jana.
Ondoren, bingo.
Festetako sarien banaketa.
16:00etatik 20:00etara Puzgarriak.
18:00etan Txokolate-jana, buruhandiak eta mozorroak.

20:00etatik 23:00etara Dantzaldia Mikel Salaberrirekin.
23:00etan Txistorra-jana.
Ondoren, gaupasa elkartean.

ETXEBERRI

>> Irailak 8, osteguna

12:00etan Meza.
13:00etan Txupinazoa.
14:30ean Herri bazkaria.
17:00etan Herri-kantak.
18:00etan Mus, partxis eta ping-pong txapelketa.
20:00etan Musika txosnan.

HIRIBERRI

>> Irailak 8, osteguna. Gazte eguna

20:00etan Txupinazoa.
22:00etan Herri afaria.
00:00etan Musika Txitera elkartean: Seppo dj, karaoketa eta photocall.



Iraia Otsoa Perez
ZORIONAK pottoka zure 4. urtebetetzean. Eskerrik asko horrela izateagatik!!! Askoi maite zaituztegu!!! Ongi pasa zure egunean. Mila muxu etxekoan partez.

Bazkideek deskontua

Bakarra: **4,00€**

Bazkideak: **3,50€**

Ostiralero SAIOA
9:30ean
Errepikapenak: 14:00 - 19:00

Astelehenetik ostegunera
Metropoli forala
9:00etatik 11:00etara

Esataria: Alfredo

Gaurko gaiak:

- Otsoportilloko ekitaldiaren aurkezpena
- Olatzagutiko alkate berriarekin
- Lakuntzako txupinazoa

107.3 FM
beleixe
www.guaixe.eus-en ON LINE

ikastetxera itzulera

Guaixe • 2016ko irailaren 2a

Opor garaia amaitu eta ikastetxera itzultzeak, hurrengan "oporren ondorengo sindromea" sortzen du. Aste bete-ko epea irauten duen denboraldia izatena horietan hurrek nekea, tristezia, antsietatea eta arreta eza erakutsi dezakete. Horregatik aholkatzen da klaseak hasi baino 7-10 egun lehenago etxean, egokitze mailakatu bat egitea (jaiki, gosalduta, bazkaldu, oheratu...).

Egokitze prozesurako hainbat aholku:

Ikastetxeko ordutegira pixkanaka egokitu, jaikitze eta oheratzeko ordutegiak finkatu aste bete lehenago gutxienez.

- >> Ordutegiak bete, ahal dela baita asteburuetan ere.
- >> Oporretan gosariak familia giroan egin eta ikasturtean zehar ohitura hau mantendu.
- >> Ikastetxeko materiala eta arropa elkarrekin prestatu.
- >> Etxeko lanekin lagundu, indartuz eta garaipenak txalotuz.
- >> Ikastetxera itzultzeak dakartzan ondorio positiboak buruz hitz egin, lagunekin elkartzeko, gauza berriak ikastea, irteerak.
- >> Haien galderei erantzun, segurtasuna eta laguntza eman.
- >> Ahal den guztietan ariketa fisikoa egin, estresa eta beldurrak ekiditeko.
- >> Ikastetxera lagundu ahal den guztietan, ordutegiak errespetatu eta esango digutenari arretaz entzun.
- >> Sekula ez erakutsi gure lanera itzultzeko gogo eza edota kezka.

Familia lasaiak izatea haur alaiak hezitzea ekartzen du.

kaxeta
liburudenda / paperdenda

**Testu liburuak
Eskolarako materiala**
948 460 477

Larrañeta 22, ETXARRI-ARANATZ

antartiko
Munduko koadernarik onena

TV

DESKONTUAK

%10 familia ugarietara eta Beleixeguaxe txarteldunek ikastetxeko materialerako

Liburunda Alsasua
liburunda@hotmail.es

C/Burunda nº 6, 948 46 92 01

Fotokopiak
Koadernatzeak
Plastifikazioak
Eskola materiala eta literatura



Sakanaoptika
optometria · audiometria · contactologia

betaurkeketan
2x1

**%25 arteko DESKONTUA
AUDIFONOETAN**

948 563 124 · Intxostia zeharbidea 10 · Altsasu · www.optikasakana.com

Ikastetxeko itzulera aldaketagarria da eta hainbat gauza aldatu behar izaten dira: ordutegia, espazioa, bizimoduaren erritmoak... Beste pertsona batzuekin egotea dakar, beste ekintza batzuekin egitea, jatzeko modua aldatu eta udan egin ez den ahalegin intelektualean saiatzea ere. Hoberena gauzak lasai hartzea da eta poliki, denok behar dugulako egokitze prozesua. Garai ona da, halaber, osasunari erreparatzeko eta gure osasuna hobetzeko moduan pentsatzeko. Gorputzaren higieena, ariketa fisikoa, afektibitate eta sexualitatea, segurtasuna eta istripuen prebentzioa, elkarbizitza, ikasketak eta atsedenaldia baita tokia eta giroa.

IZEN EMATEKO EPEA ZABALIK!!

Ingelesa era natural eta errazean
3 urtetik aurrera
Ikasle kopuru mugatua
Famillendako deskontuak
Materiala eskolaren esku
Kursoan zehar atzerriko bisitari eta irakasleak

TRAVELLERS
school of english

Juan Martinez Del Olmo
travellersaltsasu@gmail.com | Foru plaza, 17 · Altsasu
696 55 49 38

IKASTETXERAKO MATERIAL ESKAINTZA ZABALA
marrazketa orokorra eta teknikoak · margoak · material didaktikoa · eskulanetarako tresneria · karpetak · orriak · arbelak · bulegoko altzariak

TXARTEL

Bakea kalea, Altsasu
948 564 002
www.txartel.net

TxikiTxo
Haurren arropa eta lentzeria

Ferialeku, 2
ALTSASU
948 46 73 08





Zoila Berastegi

Udak dakarrena, **udak daroa?**

astekoa

Badoa uda eta harekin joango dira ezinbestean beroa, oporrak eta herrietako jaiak. Eta lagun artean edo familian laburtuko ditugu zer izan diren azken bi hilabete hauek: “*ni Mexikon egon naiz*”, “*igerilekuko bazkide txartela gero eta garestiago dago*”, “*juergetan utzi dut aurtengo extra*”, “*horrelako beroekin ezin*

lorik egin egon naiz”, “*badakizu norekin hasi den ateratzen Igor?*”... eta kafe edo kaña baten bueltan partekatuko ditugu beste hainbat txutxumutxu. Baina udak badu beste aurpegi bat, ez hain goxoa; ez hain ozena; ez hain partekatua, eta bereziki emakumeendako erreserbatua. Eta honi buruz ezer gutxi esaten

dugu gure gertuko zirkuloetan eta are gutxiago zalantzan jarri.

Zenbat emakume egon dira hondartza edo igerilekura joan gabe haien gorputza bainujantzia jartzeak lotsa ematen zielako? Zenbat emakume egon dira “bikini operazioa”-ren gatibu? Zenbat emakume egon dira osasungarria dena baino ordu gehiago eguzkia-

ren aurrean beltzaran jarri ahal izateko? Zenbat emakumek ez dute top-less egin -gogoak izan arren-, jende ezagunaren aurrean? Zenbat emakumek egin diote uko izozki bati zituen kaloriak begiratu ondoren? Zenbat emakumek jantzi dituzte praka luzeak, gona motzak ordez, hanka iletsuak estaltze arren? Zenbat emakumek jasan dituzte irainak bikini edo burkinia eramateagatik? Zenbat emakumek makilatu dute haien tristura uda honetan? Zenbat emakume egon dira haien buruekin eta haien gorputzekin deseroso? Zu izan zara horietako emakume bat? Ni, tamalez, bai.

Gure gorputza gure territoria da. Egin dezagun libre!!!

barrutik kanpora **Adi**

Berriz ere hemen gaituzue. SASOIA, Nafarroako jubilatuen elkarte, jubilatua eta pentsiodunekin zerikusia duten berriak, arazoak eta joan-etorriak Guaixeren bidez zabaltzeko prest dago. Uda-ko atsedena eta gero, lanari ekin nahi diogu berriz, indartsu eta gogotsu eta dirudienez, bero eta mugitua dator udazkena. Uda hone-

tanzarata nahiko atera du pentsioen gaiak, erabaki astunak hartzeko bidea atontzen ari direla dirudi; motorrak berotzen ari dira.

Errekak hotsa ateratzen duenean ura daramala esaten da. Ez da gaurko esaera, aspaldikoa baizik; ez da gezurra, egia da. Askotan izan gara esaera zahar honek islatzen duen errealitatearen

lekuko. Errekak, ubidetik ateratzen denean sortzen duen zarata zalapartatsua da, beldurgarri eta kaltegarria ertzean bizi direnendako, ikusgarria kuxkuxeatzeko ibaira hurbiltzen direnendako. Nor ez da hurbildu uholde batek eskaintzen duen irudia ikustera.

Azkeneko urte hauetan jubilatuen pentsioak ere zarata asko ateratzen ari dira eta ertzean bizi garenok kalteak jasotzen ari garen bitartean, ez da aurrekusten uholdeak saihesteko asmorik. Alderantziz, uda honetan pentsioen siste-

mari buruz zabaldu diren berri eta iritziak kezkatzekoak dira, ez lasaitzekoak. Aditu batzuen ustez, pentsio sistema bidegurutze batean aurkitzen da. Etorkizun iluna aurrekusten diote, langile kopurua txikia eta pentsiodunena handia, bizi iraupena luzatzen, pentsio kutxatik atera sartu baino gehiago, konponbide zaila. Betiko kontua, ikuspegi ekonomizista batetik ezinezkoa. Horregatik aldarrikatzen dugu pentsioen arazo ikuspegi politikotik eratu behar dela, pentsiodunen eskubi-deak bermatu behar direla: pen-

tsio duinak, osasun zerbitzuak, dependentzia...

Hala ere, beste arrisku bat aipatu nahi dut. Badirudi gu, pentsiodunok, garea egoera honen errudunak. Gero eta jubilatua gehiago onartzen dituzte goitik zabaltzen dizkiguten irizpide hauek eta jarrera kolaborazionista hau bai izan daitekeela Gobernuaren asmoen lagungarri. Guk ezin dugu horrelakorik onartu, garbi izan beharko ditugu gauzak eta garbi gure egin beharra. Horretan saiatuko gara. Adiegon. **Sasoia, jubilatuen elkarte**

hara zer dien

Alzheimerraren munduko eguna

Irailaren 21ean Alzheimerraren munduko eguna ospatuko da. Data hori 1994. urtean Osasunaren Mundu Erakundeak eta Alzheimerraren Nazioarteko Federazioak aukeratu zuten. Ospakizun honen helburuak dira, batetik, gaixotasunaren eta eragiten dituen ondorio sozio-sanitarioen gaineko informazioa aditzera ematea eta, bestetik, biz-

tanleriaren eta erakunde ofizialen elkartasuna eta laguntza eskatzea.

Alzheimerra ondorio larriak dituen arazo sozio-sanitario bat da. Gero eta kasu gehiago egotea estuki lotuta dago gure gizartearen bizi-itxaropenaren igoerarekin. Sortuko duen dependentziak ez dio bakarrik gaixotasuna daukan pertsonari eragingo, gaixoa

zainduko duen familiak ere jasan go du. Hori dela eta, Alzheimerrak gizarte osoari eragingo dio eta denon artean egin behar diogu aurre. Denak inplikatu behar ditugu; biztanleria arrunta eta, batez ere, komunitatearen ordezkariak.

Orokorrean adineko pertsonen eragiten dien gaixotasuna denez eta adinarekin bat datozenaren ustetan, hasierako sintomei ez

zaie kasurik egiten. Hori horrela, hasierako seinaleei adi egon behar da, izan ere, detekzio goiztiar batek tratamendua ahalbidetuko du eta gaixotasunaren aurreratzea ahalik eta gehien motelduko du.

Gaixoak memoria galduz doaz pixkanaka eta azkenean ez dakite non bizi diren, zailtasunak dituzte bizi osoan zehar hitz egiteko erabili dituzten hitzez baliatzeke, senide eta lagunak arrotzak zaizkie eta laguntza behar dute eguneroko oinarrizko ekintzak aurrera eramateko, hala nola, janzteko, haien burua garbitzeko, diruarekin moldatzeko, pase-

atzeko... eta azkenik inkontinente bihurtzen dira. Jarrera arazoak ere eragin ditzake gaixotasunak, eta hauek zainketa zailtzen dute eta garapenaren pronostikoa okertzen dute.

Gaur egun, Alzheimerra botiken eta psikoestimulazioaren laguntza moteldu daitekeen gaixotasun bat da, baina ez dago sendatzerik. Jakin badakite zenbait faktore kontrolatuta (tentsio artetrial, kolesterola, diabetesa, elikadura osasuntsua, jarduera fisiko eta mentala) gaixotasunaren balizko agertzea atzeratu daitekeela. **Josefina Arregi Klinika**

gutunak

Atal honetan ahalik eta iritzi gehienek toki izan dezaten **1.500 karaktere** (espazioekin) baino gehiago duten gutuniek EZ DA ONARTUKO. Karaktere

kopuru horretatik gorako gutun guztiak LABURTU egingen dira. Gutunean izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren

zenbakia agertu beharko dira. Gutunak asteazkeneko goizeko hamarretarako egon behar dira gurean; bestela, ez da aste horretan

publikatuko. Guaixe aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.

Zure iritzia helarazteko: **Foru plaza, 23, 1 Altsasu; gutunak@guaixe.eus edo 948 564 275 telefonoa.**

Nafarroatik karabana solidarioaren hausnarketa

Asun Fernandez de Garaialde Lazkano Sala. Karabana Greziara: mugak zabalduz ekimeneko kidea

Hamar egun izan dira bidaiak eta Thessalonikin burututako “No Border Camp”-en, Europar Batasunaren migrazio politikak salatzea helburu zuen akanpa-

lekuan (...)

Hau ere genozidua da! Manifestazio askotan oihukatutako kontsigna da. Grezian ikus daitekeena laburbiltzen du esaldiak.

Lurralde greziarraren barnean blokeaturik dauden pertsona errefuxiatuak eta migratzaileak bistaratzea izan da ekintza guztien helburu garrantzitsu bat. Toki desberdinetan daude, baina

guztiekin komunean hau dute: mugitzeko eta beste herrialde batzuetara lekualdatzeko ezintasuna. Hainbeste aldiz salatu ondoren, Europar Batasuneko estatuek negoziatutako kupo minimo eta ikaragarri txikiak betetzen ez direla birgogoratzeak alferrikakoa dirudi. Bestalde, Europar Batasunak Turkiarekin duen akordioa ere salatzen dugu.

Karabanak errefuxiatu eta migratzaileendako hainbat zentro eta esparru bisitatu zituen. Asaldagarria izan zen barneratze zentro “ofizialean” ikusitakoa, ez baitziren segurtasun, osasun eta elikatze baldintza minimoak betetzen. Gatazkak, gerrak, mota guztietako erasoak mehatxuak jasanda ere, haien jatorrizko herrialdeak seguruagoak direla uste dute.

Hau bai ez genuela espero.

Aurrera begira: elkartasuna. Egunero politika hauek errefusatzea indarrean jarriko dugu eta, gure kasuan, hegoaldeko mugari espresuki aipamena egingez. Atzerriartasun Legea indargabetzea, CIESen eraispena eta mugak irekitzea eskatzen dugu beste behin.

Osorik: www.guaixe.eus

Guaixe



ERREDAKZIO BURUA: Alfredo Alvaro Igoa • guaixe@guaixe.eus
ERREDAKZIOA: Maider Betelu Ganboa • kirolak@guaixe.eus
MAKETATZAILEA: Garbifne Navarro Rodríguez • maketazioa@guaixe.eus
PUBLIZITATEA: Maria Saez de Albeniz • publizitatea@guaixe.eus
 eta Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.eus

ERREDAKZIO LAGUNTZAILEAK: Maialen Huarte Arano
ZUZENTZAILEA: Garazi Garzia
ARGITARATZAILEA: Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675
KOORDINATZAILEA: Goizeder Anton Iturralde • fundazioa@guaixe.eus
DISEINU ZERBITZUA: GK• Ainhua Etxeberria Pikabea • gk@gkomunikazioa.eus
ADMINISTRAZIOA: Gixane Andueza Goikoetxea • admin@guaixe.eus

LEGE GORDAILUA: NA-633/1995
TIRADA: 3.200

LAGUNTZAILEAK:

Mank
 s a k a n a

BAZKIDEAK

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
 HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA
 ETA KULTURA SAILA
 Hezkuntza Politikako Salburordetza

LAUGARREN HILDAKOA ERREPIDEAN:
Auto istripuen ondorioz aurten laugarren hildakoa Lakuntzako motor gidari bat izan zen. 37 urteko gizona Sakanako Autobiako

Lakuntzako irteera eta errepide zaharren arteko bidegurutzean hil zen agorriaren 17an izandako ezbeharrean.

sakanerria >>

SAKANA

Argi dago, euskaltegi garaia da

“Zer den uda akaberarekin batera etortzen dena? Argi dago, euskaltegi garaia!” Horixe telebista-galde erantzunen lehiaketa batean eman daitekeen elkarrizketa da. Eta, hain zuzen, Nafarroako udal eta toki entitateetako euskara zerbitzuek, Sakanako Mankomunitatearena barne, horixe, telebista lehiaketa bat du euskarri nagusia. Hartan parte hartzen dutenek hitz batzuk asmatu beharko dituzte.

Euskara zerbitzuen kanpainaren leloa *Argi dago* da. Eta zer dago argi? “Euskarak lotura estua duela honako hitzekin: gozamina, hurbiltasuna, praktikotasuna, transmisioa, balioa, sozializazioa. Hitz horiek guztiak esaldi berean elkartuta, euskararen definizio

hau osatu dezakegu: Euskara balioez zein onuz beteta dagoen zerbait da, hurbila, gozoa eta praktikoa; haurtzarora —transmisioaren bidez—edo helduarora jasotzen da; konplizitateak, emozioak eta sentimendu positiboak eragiten ditu; eta, erabiliz gero, aukera ematen digu gozamina eta poza sentitzeko eta gure sozializazioa errazteko.”

Kanpainarekin hainbat gauza gogorarazi nahi digute “euskara ingurune hurbilenean daukagu; jende askorendako komunikatzeko, afektibitatea adierazteko, harremanak izateko eta gozatzeko bidea da; hiztunen komunitate dinamikoak, aktiboak eta dibertigarriak egituratzen du; gure seme-alabei transmititzen ahal diegun

ondarea da; eta balio erantsi handia du lan esparruan”.

Aldi berean, euskara zerbitzuetatik gogorarazi dutenez, “pertsonaren sozializazioa ez da lehendabiziko urteetan bukatzen, aitzitik, bizitza osoa barne hartzen duen prozesua da. Horregatik, hain zuzen, euskarak balio handia du aukerez beteta dagoen egungo gizarte dinamiko eta aldakor honetan. Euskara belaunaldi eta adinen arteko zubia da jada, eta, beraz, ikasteak onura ugari ekarriko dizkigu”.

www.elaide.eus

Web orrian kanpainako bideo dibertigarria eta bestelako materialak ikusteko aukera dago.



Matrikulazioa eta diru-laguntza

Euskaltegiek ireki dute 2016-2017 ikasturteko matrikula epea. Sakanako AEK-ren Itsasi euskaltegian izena emateko azken eguna irailaren 23a izanen da. Klaseak irailaren 26an hasiko dira. Informazio gehiago nahi duenak AEK-ren Itsasi euskaltegiaren egoitzatik pasa (Gartzia Ximenez, 46. Altsasu), edo 948 468 258 telefonora hots egin edo sakana@ae.eus e-postara idatzi dezakete.

Mank-eko euskara zerbitzuak gogorarazi du euskara ikasleendako diru-laguntza deialdia egiten duela urtero. Eskaeren arabera, ikasleen matrikularen gutxi gorabehera erdia pagatzen du Mank-ek. Aurreko ikasturtean 95 sakandarrek jaso zuten diru-laguntza. Horri buruzko informazioa euskara zerbitzuan jasotzeko: 948 464 840/948 464 867 edo euskara@sakana-mank.eus.

SAKANA

Lansareren prestakuntza ikastaroa enpresa batean



Lacunza Kalor Groupeko langile bat.

praktikak egin ditzaten. Guztia eskualdeko langabetuen garapena eta prestakuntza errazteko. Antolatzaileek argitu nahi izan dutenez, ikastaroko parte-hartzaileek ez dute enpresan lan egiten.

Nafar Lansaretik azaldu dutenez, prestakuntzarako lege berriak ahalbideratu du esperientzia publiko-pribatu hori aurrera eramatea, kasu horretan lokalak erabiltzen utziz. Ildo horretan sakondu nahi du Nafar Lansarek, prestakuntza ikasleen bizilekutik ahalik eta gertuen eman eta prestakuntza enpresen behar eta Nafarroako geografian ezaugarrietara egokitzeko. Horretarako, eskualdeko agente eta enprekin harremanetan ariko da.

Nafarroako Enplegu Zerbitzuak Nafar Lansarek industria arloko prestakuntza ikastaroa ematen ari da Altsasun. 40 orduko ikastaro teoriko-praktikoan ikasleek orgatilla, garabia-zubia, plataforma-jasotzailea eta lan arriskuen prebentzioa ezagutzak jasoko dituzte. Ikastaroa astelehenean hasi zen eta irailaren 9an despedituko da. Eragileek sumatutako beharretan trebatuko dira ikasleak.

Ikastaroaren berritasuna da Nafar Lasareko Altsasuko enplegu bulegoak eta Iturrondo zentroek antolatu dutela eta Lacunza Kalor Group SAL enpresak lagundu duela. Sukaldeak, estufak, tximiniak eta berogailuak egiten dituen enpresak bere azpiegiturak dohainik utzi ditu ikasleek han

>> Altsasu



Burundesarendako lau Sunsundegui

La Union taldeko Burundesa konpainiak Sunsundegui egindako lau autobus jaso zituen agorriaren hasieran. Autobusak berritzeko urteroko plangintzaren barruan sartzen da erosketari eta hartan milioi bateuro baino gehiago inbertitu du. Zehazki Altsasuko autobus-egileari nazioartean aitortza ekarri dion SC7 gama altuko lau ibilgailu eskuratu ditu Burundesak. Lau autobusek azken aurrerapenak dituzte gidatzeko, segurtasuneko, irisgarritasuneko eta bidaiariendako erosotasunerako. +www.guaixe.eus

SAKANA

SEEn prestakuntza eskaintza

Sakanako Enpresarien Elkarteak (SEE) langileei eta langabetuei zuzendutako doako bost ikastaro antolatu ditu udazkenerako. Legedia aldatzeko ikastaroak antolatzeko aukera eman dio SEEri, baieztapena jaso ez badute ere deialdia egitea erabaki du elkarteak, bestela antolatzeko denborarik gabe geldituko litzatekeelako.

SEEk honako ikastaroak antolatu ditu: ingelesa (85 ordu, irailaren 26tik azaroaren 30era, 18:00etatik 20:30era, Arbizun), emozio adimena (30 ordu, lastailaren 22tik azaroaren 26ra, larunbatetan, 9:00etatik 14:00etara, Arbizun), Exceleko taula dinamikoak (20 ordu, lastailaren 19tik 27ra, 17:00etatik 21:00etara, Altsasun), talde lana (32 ordu, azaroaren 14tik 29ra, 17:00etatik 19:00etara, Altsasun) eta kontabilitate analitikoak (40



Prestakuntzan murgildurik.

ordu, lastailaren 3tik 26ra, 16:00etatik 20:00etara, Altsasun).

formacion@aesakana.com

Informazioa eskatu edo izena emateko eskuratzeko bidea. Izen ematerakoan ikastaroa, izen-abizenak, harremanetarako telefonoa eta langilea edo langabetua den zehaztu behar dira.

Sorgiñak
taberna

LAKUNTZA
948 576 357

nere cenoz
nutrición

Giza Elikadura eta Dietetikan Diplomatuak (Nafarroako Unibersitatea)

info@nereacenoz.com
nereacenoz.com

Informazio gehiago 654 910 289 telefonoan

Estafeta 16, atzea · Lakuntza (Bostekoa masaje zentroan)

Pisua kontrolatzeko dietak:

- Argaltzeko dietak
- Pisua hartzeko dietak
- Mantenimendu dietak
- Haurdunaldi-dietak

Patologia ezberdinetarako dietak

- Kirol-elikadura
- Elikadura arazoak
- Nutrizio-hezkuntza

Txalaparta

Taberna

Ongi pasa auzoko festetan !!

948 467 070
Zumalakarregi plaza
ALTSASU

» Uharte Arakil



Margari eta Teresa.

Artzaintza festaren erdian

Sei gazta onenen artean hiru sakandarrak izan ziren eta Idiazabalgo Euskal Herriko txapelketan izanen dira. Bestalde, Jexux Razkinen txakurra 3. sailkatu zen

Ardi latxa eta euskal artzain txakur-ekin lan egiten duten artzainak omentzeko eguna zen igandekoa, Artzain Eguna, 49. edizioa. Abartzuzako Orrizaga gaztandegiko gaztak irabazi zuen lehiaketa eta erdiagatik Lakita SA eraikuntza enpresak 4.450 euro ordaindu zituen Antolakuntzak Benigno Mendia Goi-koetxea urdiaindara eta Patxi Uriz Domezain zinemagilea omendu zituen eguerdian. Geinberako zelaian, artzain txakurren lehiaketa hasi aurretik Aralar Mendi elkarteak neguan zendutako Pilar Elizalde Jaimerena omendu zuen, Amaiurko Borda Xuria baserrikoa izan da lehiaketa horretan orain parte hartu duen emakume bakarra. Oroigarria lehiaketan parte hartu zuen haren seme Jose Mari Ixtilartek jaso zuen.

BERRITASUNA

Geinberako zelaian goitik behera pirriñekabotazuten gaztabat eta hura hartzeko prestoztortzi boluntario agertu ziren. Borroka estua izan zen.



Gaztagile txapelduna.



Ardi motzailleak lanean..

Sariak

35. gazta txapelketa

Gazta	Gaztagilea	Herria
1. Orrizaga	Mari Mar Castro	Abartzuz
2. Beriain	Balda Artola y Otros	Unanu
3. Ibarmusu	Migel Angel Garcia	Unanu
4. Gorritz	Jose Javier Sestorain	Leitza
5. Arnotegi	Felipe Agirre	Eulate
6. Albi	Campion eta Ganboa	Arruazu

49. Artzain txakur lehiaketa

1. Lagun, Joxe Mari Ixtilartena,	325 puntu.
2. Bizkor, Joxe Mari Ixtilartena,	255 puntu.
3. Neska, Jexux Razkinena,	243 puntu.
4. Hego, Martxel Uhalderena,	188 puntu.
5. Argi, Antonio Uharterena,	153 puntu.
6. Arakil, Jorge Oteizarena,	144 puntu.
7. Bat, Antonio Alustizarena,	140 puntu.
8. Jai, Antonio Alustizarena,	139 puntu.
9. Lixta, Antonio Uharterena,	46 puntu.
10. Argi, Josetxo Billabonarena,	23 puntu.
11. Katy, Javier Fernandezena,	23 puntu.

Euskal artzain txakur onena

Lagun, Jose Mari Ixtilartena.
Bizkor, Joxe Marti Ixtilartena.

Hobekien jantzitako artzaina

Javier Fernandez

XXXIX. Nafarroako ardi-moztailen txapelketa

1. Joseba Ugalde, Zornotza
2. Ipar Arrinda, Lekeitio
3. Jaime Colera, Mediana de Aragon

XXXIII. Latxa ardiaren esne ekoizpen txapelketa

Bi urte baino gehiagoko arpeztzak

1. S.I. Marco Garces JM eta Marco Uhalde, Isaba
2. Josu Olló Iturralde, Goldaratz
3. S.C. Irigoien Rekarte, Arizkun

Bi urte baino gehiagoko burugorriak

1. Juan Jose Irungarai, Azpilikueta
2. Xabier Zelaia Elorza, Altsasu
3. Concepción Basterrika

Bi urte baino gutxiagoko arpeztzak

1. S.C. Ezkurra Eskisabel Fj Ezkurra, Izurdiaga
2. S.I. Marco Garces JM eta Marco Uhalde, Isaba
3. Fco. Javier Zalba Ibarrola, Bizkarret

Bi urte baino gutxiagoko burugorriak

1. Juan Jose Irungarai Aleman, Azpilikueta
2. Manuel Bengoetxea Suhas, Urdazubi
3. Xabier Zelaia Elorza, Altsasu

XXXIII. Latxa ardiaren lehiaketa morfologikoa

Ardi helduen taldea

Arpeztzak

1. Jose Angel Azpiroz, Beuntza
2. Iosu Olló, Goldaratz
3. Patxi Zalba, Biskarret

Burugorriak

1. S.C. Lopez Azpilikueta, Lezaun
2. Isidro Basterrika, Ituren
3. SC Araña, Arbizu

Arkumeen taldea

Arpeztzak

1. S.C. Irigoien, Arizkun
2. Iosu Olló, Goldaratz
3. Joze Angel Azpiroz, Beuntza

Burugorriak

1. Sc Lopez Azpilikueta, Lezaun
2. Manuel Bengoetxea, Urdazubi
3. Isidro Basterrika, Ituren

Ustiategiarendako sari berezia

Sc Lopez Azpilikueta, Lezaun

22. ardiki lehiaketa

Txapelduna: Gazteluleku elkarte (Iruña)

Parte-hartzaileak alfabetikoki sailkatuta:

Aralar Mendi (Uharte Arakil)
Aitziber Elkarte (Urdaian)
Catering Zubillaga (Egokue)
Napardi (Iruña)



FESTAK Ziordia

Memoriadun txupinazioa

Herriko patroia, Andre Mari-aren Jasokundearen, bezperan hasiko dituzte ziordiarrek festak. Herri bazkariak girotuta iritsiko dira arratsaldeko txupinazora. Herriko memoria historikoa berresku-

Egitaraua

» Irailak 7, asteazkena

15:00etan Herri bazkaria.
18:00etan Dantzaldia herriko gazteek prestatuko koreografiekin.
19:00etan Txupinazioa Gerra Zibileko desagertu eta fusilatuen senideek botatakoa.
20:00etan Herri kirolak, bigarren edizioa, Zangitu fanfarreak alaitua.
22:00etan Herri afaria.
23:00etan Txof zirkuaren emanaldia, argi ikuskizuna eta piroteknia.

» Uharte Arakil



Sustrai eguna bueltan da

Joan den urteko estreinako esperientzia onaren ondoren, Sustrai Eguna bueltan da Uhartean.

+www.guaixe.eus

Egitaraua

12:00etan Txupinazioa eta kalejira.
14:30etan Bazkaria.
17:30etan Jolasak.
23:00etan Kontzertua: Saint Bartolomiu's Warriors.

» Altsasu



Garagardoa hitzordua

Zubiondo elkarteak atzo zabaldu zuen Zubeztia plazan jarritako karpa. Horrekin batera, 14. aldiz Altsasuko garagardo azokak atak zabaldu zituen (2003an abiarazi zuten peñek). Handik pasatzen direnek iturriko zazpi garagardo eta botilako beste hainbat dastatzeko aukera izanen dute. Edanarekin batera jatekoa eskatzeko aukera ere izanen da: txerri-ukondoa, hainbat espeziadun txerriak, saltxitxa, oilasko-errea eta beste. Ostiralean eta larunbatean 19:30etik 3:00etara egonen da zabalik; domekan, berriz, 19:00etatik 00:00etara.

ratzeko ariketa izanen da festei hasiera ematen dien suziria. Izan ere, "36ko altxamendu faxistaren arrazoi ezaren biktima" izan ziren 13 ziordiarren senideek piztuko dute etxajua.

Patxi Bengoetxea alkateak adierazi duenez, ekitaldiak "inoiz ez gehiago ahaztuak ez izateko eta

23:30etik 2:00era Dantzaldia Txumari dj-rekin.

» Irailak 8, osteguna.

Jubilatuaren eguna
9:00etatik 10:00etara Aurora.
11:00etan Hamaiketako enparantzan.
13:00etan Meza.
13:30ean Luisiana bikotea, mariatxiak.
14:30ean Jubilatuaren bazkaria Iñaki akordeolariak alaitua.
17:30etik 19:00etara Pilota partiduak Sakanako eskolaren eskutik.
18:30etik 19:30era Loretxua Zirkuaren

» Altsasu

Extremadurako patroia ospatzera

Guadalupeko Ama, Extremadurako patroia festa ostegunetik, irailaren 8tik, larunbatera aurreratu du La Encina Extremadurako kultur elkarteak. Biharko ospakizunak San Juan ermitan hasiko dira, kantatutakomezarekin, 11:00etan. Hura despeditu ondoren, adiskidantza giroan, bildutakoendako auzatea izanen da ermitako zelaian, 12:30ean. Txerria hil zutenean egindako produktak dastatzeko dituzte. Ermita ingururik elkartearen egoitzara lekualdatuko da ospakizuna. Izan ere, 14:30ean bazkaria izanen dute. Bazkal ondoren Iruñeko Extremadurako Etxeko dantza taldeak alaituko du.

» Altsasu

Festetako herri bazkaria, auzolanean

Irailaren 17ko, larunbateko herri bazkarian lan egiteko boluntarioek tabernetan eman dezakete izena

Altsasuko festetako jarduera jendetsuena bihurtu da herri bazkaria azken lau urteetan. 700 bat pertsona elkartzen dira eta 60 bat aritzen dira lanean. Festa batzordean egitasmoa sortu denetik herriko hainbat talderen ardura izan da herri bazkaria antolatzea. Aurtan, hainbat arrazoiengatik, horiez da posible izanen. Eta enpresa bati eman aurretik, altsasuar talde bat elkartu egin da herri bazkari hori jaio zen moduan mantentzeko: "herri sortutako eta kudeatuta, eta herriarendako egina."

Horregatik, festetako herri bazkaria antolatzen lan egin nahi duten guztiei tabernetan jarri diren paperetan izena emateko deialdia egin dute. Bestetik, aurre-

inoiz ez gehiago horrelako basakeria garaiak bizi ez izateko" balio dezala nahi luke. Eta gaineratu du: "oroitzapen honek balio dezala herri txiki handi honetan bizi garen pertsona guztien arteko lotura lortzeko". Alkateak aurreratu duenez, lastailean memoria- ren hilabetea izanen da Ziordian.

Lapurretak emanaldia, haurrendako antzerkia.

19:30ean Japoniar bonbak eta buruhandiak.

20:00etan Ardo eta Eginoko Artzaia gazta dastaketa.

20:00etatik 22:00etara Dantzaldia Txumari dj-rekin.

22:00etan Zezensuzkoa

00:00etatik 2:30era Dantzaldia Txumari dj-rekin.

» Altsasu

Intxostia, bost urteko festak

Egitaraua

12:00etan Txupinazioa.
12:10ean Altsasuko erraldoi eta buruhandien dantza.
Kalejira Intxostia txarangarekin eta poteoa.
Japoniar bonbak.
12:15ean Iskiza gimnasia erritmikoko klubaren ikuskizuna.
14:30ean Herri bazkaria.
16:00etan Herri musika eta japoniar musiken jaurtiketa.
18:00etan Mejikano taldearen emanaldia.
19:00etan Saski handi baten zozketa.
19:30ean Yoseikan Budo erakusketa.
21:00etan Hodei magoaren Ordu magikoa erakustaldia.
22:00etan Zezensuzkoa.
23:30ean Beti Jai taldearen emanaldia.
4:00etan Festen akabera.



ratu dute bazkariaren diru etekina herrian leudeken behar materialetara bideratuko litzatekeela: mahaiak, aulkiak, puzgarriak, txosna... Zer erosi bazkariara joaten direnek erabakiko dute, bazkari txartelatan hainbat aukera izanen baitira. Auzolanean arituz edo herri-bazkariara joanez, parte hartzeko deia egin dute.

SAKANA

Otsoportillo, elkarlanean

Hamar udalek elkarrekin antolatu dute igande eguerdiko oroimen ekitaldia. Etorbizunean hala izan dadin lankidetzaz hitzarmena lantzen ari dira

Aurten 80 urte bete dira estatu kolpea izan zenetik. Ondorengo errepresioaren ondoren erail eta Otsoportilloko lezera bota zituztenen hezurdurak identifikatzeko atera dituzte Aranzadi Zientzia Elkarrekoek aurten. Urteurren borobilak eta exhumazioak, beraz, aurtengo Otsoportilloko ekitaldia berezi bihurtu dute. Faxismoaren kontra eta oroimenaren alde egiten den ekitaldia, horregatik, berezia izanen da, oroimena, salaketa, aldarrikapena eta arte eszenikoak ardatz dituenak. Alde batek, omenaldia izanen da eta, bestetik, kontzertu berezia.

Hitzarmena

Iraileko lehen igandeko omenaldia Etxarri Aranazko Udalak eta eraildakoen senideek antolatzen dute urtero 1980tik. Aurtengoa Etxarri Gogoan lan taldeak eta Etxarri Aranazko Udalak antolatu dute. Baina beste bederatzidudalen laguntza izanen dute. Izan ere, etorkizuneko ekitaldiak hamarren artean elkarlanean egiten dira. Hori zehazteko udalak hitzarmena lantzen ari dira, baina dagoeneko igandeko ekitaldiaren aurkezpenean elkarrekin agertu ziren: Arruazu (Ainara Martin, zinegotzia), Lakuntza (Xabier Arraiz, zinegotzia), Arbizu (Karmele Marañon, alkatea), Etxarri Aranatz (Eneka Maiz, alkatea), Bakaiku (Aner Galartza, zinegotzia), Iturmendi (ez zen ordezkari izan), Urdiain (Oihana Gallo, zinegotzia), Altsasu (Javier Ollo, alkatea), Olatzagutia (Mikel Azkargorta, alkatea) eta Ziordia (Olatz Irizar, zinegotzia).

Haien guztien izenean Maizek hartu zuen hitza eta lehenik aitortu zuenez, "historia-memoriaren arloan oraindik egiteko asko eta asko dago." Urteurrena eta exhumazioa kontuan izanik "momentu aproposa zen ekitaldiaren antola-



Otsoportilloko ekitaldia udal ordezkariak aurkeztu zuten.

ketari buruzko hausnarketa egiteko". Horregatik memoria lantzen ari diren ibarrek hainbat talderekin, udalekin eta eraildakoen senideekin hainbat bilera egin zituzten. Maizek bileren ondorio azaldu du: "ekitaldiaren antolaketa eta egitura irekitzea erabaki zen."

Gaur egun hamar udalak hitzarmen zirriborroa prestatzen ari dira, Otsoportilloko ekitaldia urtero den artean antolatzeko. Agirian jasoak geratuko dira udalak hartuko dituzten hainbat konpromiso, besteak beste elkarrekin egiten dutela: baimenak eskatu, ekitaldia diseinatu, komunikazio eta zabalkunde lanak, alderdi teknikoak lotu, trafikoa antolatu eta beste; horiek gauzatzeko udal bakoitzak ordezkari bana izendatuko du; udalek ekitaldia antolatzeko beharrezko baliabide tekniko guztiak antolatzailen esku utziko dituzte (mahaiak, hesiak, agertokia, soinu ekipoa...); ekitaldia antolatzeko aurrekontuetan diru-saila sortuko dute eta, azkenik, hitzarmena onartu ondoren udal bilkuran onartzea. Nahi duten senide eta memoria taldeekin elkarlanean ariko direla ere aurreikusi dute.

"Urratskualitatibotzat hartzen dugu elkarlan hau. 80 urte pasa-

tuta ekitaldiak babes orokorra jasoko duelako". Otsoportillo "toki sinbolikoa eta enblematikoa" delako egiten da han, nahiz eta udal

arduradunak jakitun izan bai Sakanako bai ibarretik kanpoko beste toki batzuetan sakandarrak hil zituztela 1936an.

Egitaraua

Omenaldia 12:00etan hasiko da. Etxarri Aranazko Bertso Eskolak, azken 30 urteotan egin duen moduan, agurreko bertsoak kantatuko ditu. Segituan Castillo Suarezek propio sortutako poesia irakurriko du. Gogoratu beharra dago olerkari altsasuarrak historia-memoriaren inguruan olerkia duela Sartagudako memoria parkean. Aurrekoak jardunean dauden bitartean Iker Uribe mural-egile lakuntzarrek horma-irudia margotuko du. Azkenik, Etorbizuna dantza taldeko dantzariak ariko dira.

Omenaldi horren ondoren auzatea izanen da eta 12:30ean oroimen kontzertua izanen da. Lehenik Luisillo Kintana eta Lur Larraz musikari etxarriarrek kantu bat eskainiko dute. Ondoren Joni eta Imanol Ubeda anaia (Bide Ertzean taldekoak) Amaia Razkin biolin jole etxarriarrek bi kantu eskainiko dituzte. Aipatu beharra dago hirurek Urbasan 1936an eraildako senideak dituztela. Oroimen kontzertua despeditzeko El Drogas eta La (Des) memoria Bandek kontzertua eskainiko dute.

Sakanako memoria toki batzuk

Lizarrusti, Etxarri Aranatz, Utzubar eta Aritzalko, Altsasun Sorozarreta eta N-1 zaharra Ulaiarren, Urbasan Otsoportillo, Zelai, Basauntziturri, Ordutzeta Ubaba.

Ohar garrantzitsua

Igandean jende asko espero da Otsoportillon. Antolatzailerek garaiz joatea eta ahalik eta auto gutxien eramatea gomendatu dute.

Mendialdeko Landa Garapenerako Programa berriaren hitzarmena sinatuta

Cederna Garalurrek eta Nafarroako Gobernuak 2014-2020 Mendialdeko Landa Garapenerako Programa (LGP) berriaren hitzarmena sinatu zuten agorriaren 23an. Horri esker datozen urteotan 6 milioi euro inbertituko dira Nafarroako Mendialdeko ekonomia-ehuna eta zerbitzu publikoak hobetzeko, erakunde publikoek eta ekimen pribatuak sustaturiko proiektuak laguntzen. Biek ere azpimarratu zutenenez, Mendialdeko 2014-2020 PDR berriak jardura ekonomiko eta enplegua



Ignacio Gil eta Maite Iturre.

sortuko duten ekimen "produktiboen alde" egiten du. Horrekin batera, proiektu "ez produktiboak" lagunduko dira, esaterako, zerbitzu edo ekipamendu publikoak. Proiektu horiek Garalurren Lurralde Estrategi-

gian definitutako 5 ardatzen jasotakoak izan beharko dute: populazioa mantentzea eta finkatzea; lehen sektorea eta basogintza; natur-baliabideak; zerbitzuen garapena eta ondarearen balioa sustatzea; enpre-

sen kontsolidazioari laguntza eta enplegua sortzea.

Mendialdeko LGPa 2014-2020 Nafarroako Landa Garapenerako Programaren 19.2 neurriaren baitan sartzen da (LEADER), eta Landa Garapenerako Departamentuak ematen dio aurrekontuaren %35a, gainontzeko %65a Europar Batasunak FEADER funtsaren bidez jasoko da. Mendialdeko LGPk jarraipena emanen die Nafarroan Europar Batasunak landa eremua sustatzeko egiten dituen politikari. Duela 25 urte jarri zen martxan Garalurrek kudeaturiko lehenengo LEADER programa. Diru laguntzen lehengo deialdia 2016ko azkeneko hiru hilabetean argitaratuko da.

Non erabili

ZURE EKO DENDA

IRURTZUN

€10 eko deskontua kontsulta terapeutikoetan.

HOTEL OLATZEA

ARBIZU

Eguneko menuarekin, kafea doan, menu bereziarekin, txupittoa doan.

ETXARRI HORTZ KLINIKA

ETXARRI ARANATZ

%10eko deskontua garbiketetan.

LURESU

ALTSASU

%10eko deskontua eskaintza berezi eta enkarguetan izan ezik.

NORTE ERLOJUDENDA

ALTSASU

%7ko deskontua produktu berrietan, konponketetan eta aldaketetan salbu.

MENDIGAIN URDEIAZPIKOAK

LAKUNTZA

50€ko erosketa eginez gero etxeko produktua opari.

URREZKOA BITXIDENDA

IRURTZUN

Bitxietan 100€ko erosketarekin, %10eko deskontua.

ETXARRI KOMERTZIALA

ETXARRI ARANATZ

%10eko deskontua koltxoietan.

ARKANGOA TABERNA

ALTSASU

Postrea edo kopa doakoa.

GIXANE ESTETIZISTA

ALTSASU

Produktua opari.

www.guaixe.eus-en zerrrenda osoa ikusgai



BAZKIDETZA 50€
948 564 275

SAKANA

Suteak, han eta hemen

Zorionez ez dira sute handiak izan, baina agorrilean nahikoa lan izan dute suhiltzaileek Sakanan. Izandako temperatura altuek landaretza lehortu dute eta sua erraz zabaltzeko arriskua handia izanik, hala gertatu da. Hala, agorrilaren 6an suhiltzaileek Olatzagutian mendi sute txikia itzali behar izan zuten. 12an, berriz, Hiriberrin izan zen, Sakanako Autobiako (A-10) erdibitzailean. Ziordiarra agorrilaren 18an eta 23an joan behar izan zuten sute txiki pare bat itzaltzera. Eta azken irteera Etxarri Aranzera egin zuten, mendiko sute txikia itzaltzera, agorrilaren 26an.



Ziordia suhiltzaileak belar sutea itzaltzen udan.



Bestalde, agorrilaren 8an Altsasun hutsik dagoen Perfo System lan-tegi zaharrean sua piztu zen. Garai batean koltxoak egiteko erabiltako materiala erre zen eta hura itzaltzeko lanetan Iruñea, Altsasu eta Aguraingo suhiltzaileak izan ziren. Bi ordu eman zituzten garrak itzaltzen.

Altsasu

Jai giroan aldarrikatu dute errepresio indarrek ospa egitea

Ospa egunaren bidez, atzera ere, “edozein polizia-indar, militar zein gure herrian bizi dugun errepresio oro ez dugula nahi argi eta ozen adierazi” zuten. Ospa mugimenduko kideek esan zuten, “ez ditugu onartuko egunero sufritzen ditugun kontrolak, ez eta gure aldarrikapenak zapaltzea, herri mugimenduaren kriminalizazioa, herriaren alde lanean dabilzan pertsonak isunen bidez itotzea edo are okerrago tortura, jipoi eta espetxe zigorrek jarraitzea”. Foruzaingoa eta Guardia Zibila “klase boteretsuen alde lanean dihardute, ezagun dugu.”

Ospa eguna larunbatean ospatu bazen ere, asteazkenaz geroztik Guardia Civilaren helikopteroa Altsasun bueltaka izan zen. Aurreko egunetan kalez jantzitako agenteak ere izan ziren. Egunean bertan herri sarreretan kontrolak izan ziren eta antolatutako kalejira gertutik zaindu zuen Guardia Zibilak. Kalejiraren ibil-



Txep taldearen kontzertua.

bidean zehar parte-hartzaileek hainbat tokitan jolas edo dantza egin eta mozal moduko legea salatzeko aukera izan zuten. “Errepresio indarrak lurrez, itsasoz edo airez” alde egiteko eskatu zuten. Hori irudikatzen autoa, itsasontzia eta helikopteroa egin zituzten. Haietako batzuekin ibilbidean zehar lasterketak egin zituzten. Gaueko kontzertuarekin, jai giroan, despeditu zen aldarrikapen eguna.

Etxarri Aranz

Gaixo dauden presoaren aldeko manifestazioa

Amnistiaren aldeko eta Errepresioaren kontrako Mugimenduak (AEM) deitu du mobilizazioa, bihar, 19:00etarako. AEMk berak atzo jakinarazi zuenez, Espainiako Gobernuaren Nafarroako ordezkariak, Carmen Albak, mobilizazioa debekatu du, baina debekuari helegitea iragarri diote. Biharko manifestazioan parte har-

tzera deitu dute AEMtik. Gaixorik dauden presoak kalera, amnistia osoa leloa du deialdiak. Espeixean larriki gaixo dauden presoaren askatasuna aldarrikatuko dute. “Ezin dugu jarraitu ikusten gure preso gaixoekin nola jokatzeko duten. Herri bezala erantzun behar dugu, bestela galduta gaude.”



Amnistiaren aldeko eta errepresioaren kontrako mugimenduko bi kide gose greban.

gertutik >>>

Fernando Lizeaga eta Joxan Kortadi

AEMko kideak, gose greba mugagabeen Etxarri agorrilaren 15etik

Zergatik ari zarete gose greba?
Lizeaga: Larriki gaixo dauden presoaren askatasuna aldarrikatzea da helburu nagusia. Bide batez, haien eskubideak defendatzeko herri bezala erantzuteko ikusten dugun beharra mahai gainean jarri nahi dugu. Egun ditugun preso, deportatu eta exiliatuak aurreko borrokaren ondorioa direla ulertzen dugu eta, gure ustez, hori denon gatazka da, behintzat anai-arreba sentitzen ditugunona. Jendea mugitu behar dela pentsatzen dugu, presoena den arazoa da. Ezin diegu bizkarra eman. Dagozkien eskubideen alde egin behar dugu borroka. Guk estutu beharko ditugu legeak, etsaiak ez digu ezer ez emanen.

Zergatik gose greba?
Lizeaga: Atentzioa deitu nahian. Legea urratu gabe, behar bada, borrokatzen toperaino joaten gara. Ezin dugu gehiago eman. Gure jarrerarekin adierazi nahi dugu egoera benetan larria dela, gaixo dauden presoek aparte, jende asko eta asko oso egoera txarretan dugula adierazi nahi dugu. Badugu jendea bizi duina aurrera eramateko baldintzarik ez duena. Ulertzen dugu gure ardua dela antolatzea eta horiei guztiei gure babesa adieraztea. Bizkarra ez diegu emanen, ezta pentsatu ere.

Zergatik Etxarri?
Kortadi: Etxarri izan da leku bat eman dugun bakarra.

Bisitak jaso dituzue?

Kortadi: Dexente. Jende asko etorri da eta hitz egiteko gogoekin, nolabait gauzak, zalantzak argitzeko. Lizeaga: Jendea oso nahastuta dago eta normala iruditzen zaigu nahastuta egotea. Jendea ez da argitzen. Amnistiaren kontzeptua batzuk eta besteak erabiltzen dugu. Batzuk zentzu bat eman nahi diote besteek beste bat. Nire ustez auzi hau ez da horretaz. Behar bada horretaz hitz egiteko argudioak ere baditugu. Helburua da preso, errefuxiatu, deportatu eta exiliatu guztiei atzean herri bat dutenaren bermea ematea da. Jendeak ulertu behar du gai izan behar dugula horren alde egiteko siglarik gabe, ezer gabe. Arazoa denona da eta konpondu behar dugu. Ezin dugu horrelako jarrearik onartu: ikusita zer egoeratan dauden eta zer ari garen egiten.

Amnistiarekin zer adierazi nahi duzue?

Lizeaga: Amnistia aldarrikatzen

dugunean bere osotasunean ulertzen dugu. Amnistia lortuko dugu gure herria benetan aske izatean. Ez dakigu, ez dela helburu bat epe motzean lortuko duguna, ezta presoak ateratzea ere. Gutxienez minimo bat bezala jartzen dugu, hauen bizi baldintzak duinak izan direla bermatzeko. Gero interpretazioak sartzen dira. Batzuk pentsatzen dute bidea alde batetik markatu behar dutela, beste batzuk, berriz, horretaz ezer esaterik ez dugula. Zeren azken finean beraien erabakia da arazo bat dugu. Guk haiek hartzen duten erabakiarekiko errespetua eskatzen dugu bakarrik. Errespetua edozein kasutan. Eta gure mugimenduari ere errespetu pixka bat erakutsi. Zeren oso gaizki ari gara gure artean ere. Presoei ezin diegu hori erakutsi. Presoek zer ikusiko dute ba? Ze baldintzetan daude eta gu nola gabilta? Ez gara mugitzen, eskubideak lortzeko borroka eginen

dugula ez dugu adierazten. Minimo bat bezala jartzen dugu. Amnistiak bere osotasunean gauza askoz ere gehiago esan nahi ditu. Kortadi: Amnistia ez da bakarrik presoak ateratzea. Hori baino gehiago da. Presoak kartzelara joateko egon diren arrazoak nolabait gainditzea da. Ez da gelditzen presoak ateratzean. Presoak atera daitezke, baina amnistia aldarrikapenak hor jarraituko luke. Zeren, ziur aski, hurrengo hilabeteetan edo urteetan jende gehiago sartuko litzateke kartzelara arrazoi berberengatik.

AEMko kideak Sakanan ditu?

Lizeaga: Bai, talde bat dago. Kriston lana egiten ari dira eta eskerrik eman nahi dizkiegu. Baita Etxarriko herriari ekimen hau antolatzea posible egiteagatik. Poliki-poliki antolatzen ari gara. Helburu bakarra aipatu dugun minimo hori betetzea da. Eta gero gure herria aske izateko borrokatzen jarraitu. +www.guaixe.eus

SAKANA

Helduen Hezkuntzan izena emateko epea zabalik

Irailaren 16ra arte eman daiteke izena lehen lauhileko ikastaroetarako, eta otsailaren 7a baino lehen bigarren lauhileko ikastaroetarako

2016-2017 ikasturtean Helduen Oinarrizko Hezkuntza ikasketak egin nahi dutenek izen ematea zabalik dute. Hezkuntza Departamentuak Altsasuko eskualdean honako eskaintza egin du: Oinarrizko Hezkuntzako Hasierako Ikasketak I eta II ikastaroak (matrikularen arabera taldea sortuko litzateke); Gako-gaitasunei buruzko prestakuntza moduluei (2. maila) dago-kienez talde bana sortuko da komunikazioa gaztelaniaz eta matematika ikasgaietarako; sakandar berriendako Espainiako konstituzio-ari eta egoera soziokulturalari buruzko ezagutza taldea sortuko da eta matrikularen arabera gaztelania 2. hizkuntza gisa taldea sortuko litzateke eta, azkenik, gizarte egoera ahu-lean daudenei zuzenduta, toxikomanoen errehabilitazioari begira, astean gehienez 10 orduko saioak egingen dira Ibarreko zentroan.

Irurtzun / Arakil



Aurreko lip-duba grabatzen.

Kamara aurrean, euskararen alde

Aizpea, Irurtzungo euskaltzaleen topagunea, hasi da 365 egun euskaraz kanpaina prestatzen. Azken bi urteetan bezala, kanpainak osagai berezia izanen du Arakilen eta Irurtzunen. 2014ko lip-dub-aren eta 2015eko stop-motionaren ondoren, aurten kanpainarako bideoa egingen dute. Hamaika aldiz taldeak Julio Sotoren bertso bati doinua jarri dio eta kantu horri irudiak jarriko dizkiote orain.

365 egun euskaraz bideoaren grabazioak gaur eta bihar izanen du segida Irurtzunen. Xotakoak, gazte asanbladakoak saxoekin eta animatzaileak gaur, 15:30ean, kiroldegian dute hitzordua. Bihar beste hiru daude: 12:00etan Pikuxar euskal txokoan jaietako ator beltzak soinean dituztela Erga Larreak eta Fruitis dendakoak elkartuko dira; 16:30ean, igerilekuan, herrialde desberdinetako jantziekin, Iratxo elkarteko eta Pikuxarko kideak gurasoekin eta umeekin ariko dira kamera aurrean eta, azkenik, 19:00etan, Irurtzungo eta Arakilgo jende guztiari deia egin zaio igerilekuan antolatutako Holy festan parte hartzeko. Azken horretarako arropa zaharra eramatea eskatu dute. Joan den astean Egiarretan, Izurdiagan eta Zuhatzu izan ziren platoak. +www.guaixe.eus

Olatzagutia

Azkargorta alkate berria



Mikel Azkargorta Boal.

Agorrileko azken ostegunaz geroztik Olatzagutiko alkate da Mikel Azkargorta Boal. EH Bilduren aldeko lau bozekin izan zen aukeratu. UPNko bizinegotzietatik Javier Fresneda euren hautagaiari botoa eman zioten eta PSNko Jose Maria Aceretek bere buruari eman zion botoa. Azkargortak bost urte zinegotzi karguan egin ditu eta azaldu digunez ardura berria "gogotsu eta ilusioz beterik" hartu du.

Hurrengo hiru urteetarako asmoak argi ditu Azkargortak: "jendearekin lan egiten segitzea eta Olatzagutia hobe bat egiteko intentzioarekin."

EH Bilduren udal taldea osatzea izanen da haren lehen egitekoa, izan ere, alkateak eta alkateordeak kargua utzi ondoren, bi zinegotzi postu hutsik ditu koalizioak. Hauteskudetara aurkeztutako zerrendetako pertsonen

arrazoi bategatik edo beste gatik uko egin diote. Azkargortak esan digunez, "koalizioko kide den jendearekin hitz egiten ari gara eta hurrengo asteetan" zinegotzi kargu guztiak betetzea espero dute. UPNk zinegotzi berria duenez, udalbatza osatzen denean Azkargortaren asmoa udal batzorde guztiak berrantolatzea izanen da, "denen artean banatu eta lanean jarraitzea."

SAKANA

Gurdi bidearendako programazioa

Donostia 2016 Europako kultur hiriburutzaren barruan Gurdi Bidea ekimena antolatu dute. Herenegun Burgostik abiatu ziren idiek eta behi menditarrek tiratutako gurdien

segizioa. 18 eguneko ibilbidea osatu ondoren Pasaia izanen dute helmuga. Alabaola eraikitzen ari den XVI. mendeko San Juan baleontziaren erreplikarako, Quintanar de la Sierran (Burgos) artisauki egindako bikea eta alkitrana eramaten ari dira gurdian.

Gurdiek Sakana zeharkatuko dute hilaren 10etik 12ra bitartean, larunbatetik astelehenera. Hori dela eta, Sakanako Garapen Agentziak Gurdi-Bideari osagarria den programazioa antolatu du. Hainbat herrietan harrerak egiteaz aparte, hainbat jardura izanen

dira. Iñaki Martinez de Virgala, Nafarroako Gobernuaren Turismo-ko Marketinaren eta Produktuen Garapenerako Zerbitzuko zuzendariak, "slow tourism" eredu-ekimenez joko duen. "Karabana jarraituz Sakana ezagutzeko aukera izanen da".

Lakuntza



Aurtengo kintoak estreinakoz festetan elkartu dira.

Dorrao



Dorrobarrak errondan kantari.

Irañeta



Irintarrak auzatean indarra hartzen.

Festetako argazki galeriak: www.guaixe.eus-en

Altsasu



2015eko agerpen publikoa.

Sexu erasorik gabeko festen alde, berriro

Atzo eta gaur, 18:00etatik 21:00etara, Gure Etxean tailerra dago. Prebentzio eta erantzun estrategiak adostu nahi dira

Altsasuko Udalaren Emakume eta Berdintasun Batzordeak festen aurretik sexu erasoaren kontrako bideoa argitaratu zuten. Hartan makina bat altsasuarrek erasoaren kontrako hitza hartu zuten. Lan ildo berean jarraituz, Altsasuk: sexu erasorik gabeko festen alde kanpaina martxan jarri du. Prebentzioa lantzea eta erasoaren denentzako erantzuna nola eman erabakitzeke urratsa eman nahi dute aurten. Batzordeko buru Arantza Bengoetxeak, horregatik, "festetan modu aktiboa" parte hartzen dutenei antolatutako tailerlean parte hartzea gonbidatu ditu.

Emagin elkarteko kideek gidatu kodute tailerra eta Bengoetxeak jakinarazi duenez, hainbat galderendako erantzunak bilatu nahi dira, esaterako: gure festetan erasoak ematen al dira? Eta festak antolatzen dugun kolektiboen barruan? Zer dira sexu erasoak? Erasotzaile guztiak arazo psikologikoak dituzte? Guztiok beldurrez buelatzen gara etxera gauean ordu txi-

kitan? Autodefentsa feminista teknika fisiko batzuetara mugatzen da? Norkerabakitzen du? Erantzunak jaso ondoren sexu erasoari aurre egiteko estrategia indibidual eta kolektiboak pentsatuko eta erabakiko dituzte, "beti ere, emakume erasotuen beharrik eta ahalduz lehenetsiz, baina gertaera hauen ardura kolektiboa azpimarratuz." Hori dela eta, Bengoetxeak parte hartzeko deia berretsi du: "estrategia hori erabakitzea da taileraren helburu; horregatik talde eta pertsona guztien parte hartzea behar dugu!"

Festa denden erakuslehoan

Altsasuko peñek eta Altsasuko Dendarien Elkartek (ADE) erakusleho lehiaketa antolatu dute. Gaurtik hilaren 18ra arte, festak bukatu arte ADEko dendariak euren erakuslehoak festa giroko motiboekin apainduko dituzte. Haiekin gozatzeko gonbidapena egin dute lehiaketako antolatzaileek. Jakinarazi dutenez, hirusari egonen dira: ADEko kide diren establezimenduetarako 30 euroko hiru erosketaxartel. Horietako bat eskuratu nahi duenak Altsasuko peñen Facebook profilean sartu eta "festen giroa hobekien islatzen duen erakuslehoaren alde bozkatu dezake."

Peñetako kideak "txupinazioa leher-tzeko irrikitan" daude, "kaleak musikaz eta kolorez betetzeko". Gaurtik aurrera altsasuarrek peñekin batera festak prestatzen hasteko gonbidapena egin dute, zehazki, horrela: "gure festen koloreak herriko balkoi eta leihoetan ipini nahi ditugu, berdea, gorria, beltza edo laukiduna. Zuen blusak armairutik ateratzera eta haizetara zintzilikatzea gonbidatzen zaituztegu. Horrela, ADEren erakusleho ezberdinen apaintetan lagunduko duzue." Peña kideek altsasuarrek lehiaketan parte hartzea eta blusak erakustera animatu dituzte.



GRUPO TANATORIO
IRACHE
TANATORIO TALDEA

948 197 070

Tanatorioak: Altsasu-Irurtzun-Lekunberri-Betelu-Leitza

www.tanatoriosirache.com

Encarni Arrese Ezker



Eskerrak eman nahi dizkizuegu momentu latz hauetan, gure ondoan egon zareten guztiei.

Familia Olazti

Encarni Arrese Ezker

Hurrun egon arren, beti elkarrekin.



1950ko kintoak

Txaro Cerdán Calvo

III. urteurrena

Beti gure bihotzetan.



Zure familia

Basilio Anton Soria



Erkuden Flores Mazkian, Iñigo Aritza ikastolako irakaslearen aitagarreba



Ez nau izutzen negu hurbilak uda betezko beroan dakidalako irauten duela oraindik ere geroan.

Iñigo Aritza ikastolako guraso, ikasle eta langileak

Josetxo Goikoetxea San Roman



Ez nau izutzen negu hurbilak uda betezko beroan dakidalako irauten duela orainak ere geroan.

Alagurie

Eskertzak eta eskelak osteguneko goizeko 11:00ak arte jasotzen ditugu. Euskara hutsean argitaratuko dira.



Bidali mezua eskelak@guaixe.eus-era edo hots egin 948 564 275 telefonora

guaixe.iragarkilaburrak.com

1 HIGIEZINAK	3 LANA/NEGOZIOAK	5 IBILGAILUAK	7 AISIA/KIROLA	<h3 style="text-align: center;">NORBANAKOEN IRAGARKIAK</h3> <p>Webgunean: guaixe.iragarkilaburrak.com-en doan</p> <p>Astekarian: Saldu/erosi, errentan eman/hartu, lan eskaintzak 11€+ BEZ / 3 aste</p>	<h3 style="text-align: center;">HARREMANETARAKO</h3> <p>Telefonoa: 948-56 42 75</p> <p>Posta elektronikoa: iragarki@guaixe.eus</p>
2 TEKNOLOGIA	4 DENETARIK	6 HARREMANAK	8 FAMILIA/ETXEA		

HIGIEZINAK

LOKALAK

ALOKATU

Bulegoa alokatzen da Altsasun. Igone Goikoetxea Motino, 948 563 352 eta asesoria@asesoriagoikoetxea.es

OPATUTAKOAK/ GALDUTAKOAK

OPATUTAKOAK
Altsasuko Udaltzaingoa Altsasun galdutako gauza hauek ditu: diru-zorroak, poltsak eta nezeserrak: 31. Audifonoa: 1. Betaurrekoak eta betaurreko-zorroak: 42. Euritakoak eta mikilak: 19. Belatitakoak, kateak, eskumuturrekoak, eraztunak, erlojuak eta imitaziozko bitxiak: 31. Arropak eta oinetakoak: 48. Bizikletak eta patinak: 10. Beste objektu batzuk: 8. Etxeko giltzak eta ibilgailuak.

OHARRAK

Gazteei jarritako isunak ordaintzeko. Euskal preso eta iheslariak aldeko abenduaren 30 eki ekimenean parte hartu zuten gazte sakandarrek 6000 euroko isuna jaso dute. Mozal legearen aplikazio horri elkartasunetik erantzun kolektiboa emateko dinamika martxoan jarri dute gazteek. Diru ekarpenak egiteko kontu korrontea zabaldu dute. ES67 3008 0014 2133 8075 1119.

Helduen Nafarroako Euskal kantu Jaialdia. Udazkenean izanen da. Izena eman nahi duenak nafarroakoeskalkantu@gmail.com edo

amadominguez@tafallaikaastola.org e-postara diatzi dezake, helduen jaialdirako dela adieraziz.

Euskaldun bat euro bat. Nafarroako erresumakoa izan zen Baigorriko Etxaizia gaztelua euskaldunentzat erreskuratu nahi da. Nafartarren eta euskaldun guztien etxea izan dadin. Gure kultura, ekonomia, historia eta mugaz gaindiko harremanak antzinarazteko gunea bizia. Informazioa www.euskaldunbateurobat.com.

Nafarroako Elikagaien Bankuaren alde. Diru ekarpenak kontu korronte hauetan egin daitezke: Laboral kutxa 3035 0069 52 0690024878, Rural kutxa 3008 0001 16 0700279128 eta Caixa 2100 2173 87 0200346965.

Volkswageneko langileendako deia. Iruñeko lantegiak zure elkartasun proiektua deialdia bigarren urtez aurkeztu du. Bocalan Biak Bat fundazioak "Lau zango milaka irri" programa aurkeztu du laguntza deialdi horretara. Proiektua aurkeztu duten Sakanako elkarte bakarra dira. Fundaziotik Volkswagen-eko langileei 24 proiektuaren aldeko botoa ematera animatu dituzte.

Nicoleren aldeko diru-bilketa. Garun paralisia duen neska olaztiarra atzerrian operatzeko diru-bilketan ekarpena egin nahi duenak kontu korronte honetan sartu dezake dirua: ES33 2100 5365 2301 0002 9770.

GoiEner Iruñean. Landarek utzitako lekuan, Joaquin Beunza, 9 behea, Errotxapean, hilabeteko lehenengo eta hirugarren asteazkenetan, 17:00etatik 19:00etara etor zaitezke informazioa jasotzera, zalantzak argitzera, ekarpenak egitera...

Autoenplegurako laguntza. Zure lanpostua sortu nahi baduzu Cederna-Garalurrek honako laguntza eskaintzen du: ideia aztertzea, proiektua garatzea, enpresa sortzea edota martxoan dagoen jarduerara sartzea. Argibide gehiago: 948 56 70 10, sakana@cederna.es edo sakana.admon@cederna.es.

Mintzakide proiektua. Egonkortzeko denon laguntza behar dugu, lagundu zabalzen eta finantzatzeko: <http://goteo.org/project/zu-gabe-ezin>.

Euskonwes ekonomikoki laguntzeko kanpaina. Informazio gehiago: www.euskonews.com/laguntza, euskonews@euskonews.com, 943 32 22 94.

3MBk kontu korrontea zabaldu du Rural kutxa eta jendeak han egin ditzake ekarpenak 3008 0093 66 2460985811.

Auzolana Josefina Arregui klinikan. Parte hartu nahi dutenek 948 56 38 50 (klinika) edo 689 03 51 02 (Patxi) telefonoetara hots egin dezatela.

Josefina Arregui klinikako bazkidea izan nahi baduzu, urtean 12 € edo nahi

duzun kopurua eman dezakezu. Informazio gehiago amigosjosefinaarregui@gmail.com edo amigosjosefinaarregui.blogspot.com.

Errefuxiatuendako material bilketa. Altsasuko Frontoi zeharbidearen 14an udalak duen bajaran jasoko da, astegunetan, 11:00etatik 14:00etara. Ayuda

Humanitaria Navarra en Acción, AHNAK, honakoak eskatu ditu: arropa, umeendako beharrezkoak diren arropa, jantziak, txupeteak, pixoihalak, jatekoak (gailetak, hautsa-esnea, umeendako pototoak), haurrentako gurdiak, eskola materiala eta migratzaileendako onak izan daitezkeen bestelakoak ere.

Enplegarritasuna hobetzeko biterkaritza eta aholkularitza zerbitzua. Sakanako Enpresarien Elkarteak langabeei eta lan bila dabilzanendako duen aholkularitza zerbitzua da. Harremanetarako, 948 468 307 telefonoa. www.guaixe.eus.

- ### JAIOTZAK
- **Oihan Vicario Unamuno,** uztailaren 25ean Altsasun.
 - **Aimar Moreno Maia,** uztailaren 25ean Irurtzunen.
 - **Alain Macia Goikoetxea,** abuztuaren 7an Etxarri Aranatzan.
 - **Micael Gabriel Tyulenev,** abuztuaren 8an Altsasun.
 - **Araitz Moreno Aldaz,** abuztuaren 8an Urdiainen.
 - **Haizea Blazquez Etxeberria,** abuztuaren 10ean Altsasun.
 - **Daniel De los Santos Dos Anjos,** abuztuaren 20an Altsasun.
 - **Arwa Hassadi,** abuztuaren 23an Altsasun.
 - **Markel Larrayoz Urteaga,** abuztuaren 23an Altsasun.

- ### EZKONTZAK
- **Jorge Yeregi Zelaia eta Lorena Costa Lorenzo,** uztailaren 23an Altsasun.
 - **Diego Gonzalez Peña eta Irtzu Goikoetxea Lakuntza,** uztailaren 30ean Altsasun.
 - **Eduardo Borderias Caverro eta Ainhoa Garcia Perez,** uztailaren 30ean Altsasun.
 - **Igor Rekalde Gaiarre eta Rakel Martinez Diaz,** abuztuaren 27an Altsasun.

- ### HERIOTZAK
- **Epifanio Fernandez Martinez de Alegria,** uztailaren 28an Altsasun.
 - **Maria Josefa Razkin Maiza,** uztailaren 30ean Arbizun.
 - **Apolonia Mozo Bakaikoa,** abuztuaren 3an Lizarragan.
 - **Basilio Anton Soria,**

- abuztuaren 8an Arbizun.
- **Pedro Martin Berastegi • Lakuntza,** abuztuaren 10ean Arbizun.
 - **Romana Galarza Ostiza,** abuztuaren 12an Urdiainen.
 - **Gorka Etxarri Soto,** abuztuaren 17an Lakuntzan.
 - **Santiago Lakuntza Lizarraga,** abuztuaren 17an Lizarragan.
 - **Felipe Gonzalez Fernandez,** abuztuaren 19an Altsasun.
 - **Encarni Arrese Ezker,** abuztuaren 21ean Olaztin.
 - **Juan Jose Carvallo Martin,** uztailaren 21ean Irurtzunen.
 - **Olga Juarez Urkijo,** abuztuaren 25ean Altsasun.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da. Agertu nahi ez duenak, han jakinarazi dezala.

XAKEA

XAKE TXAPELKETA ALTSASUN: Laukia taldeak Altsasuko festaurrekoen barruan antolatuta, Xake Txapelketa jokatu da

irailaren 6an, asteartean, Altsasuko Gure Etxean. Xakelari guztiei bertan aritzeko gonbita luzatu diete.

Pilota

Gasteiz eta Bilbokoaren ondoren... atzo Donostiakoa jantzi ote zuen?

Donostiako Hiria Torneoko finala jokatu zuten atzo Altuna III.ak eta Zabaletak Olaizola II.aren eta Beroizen kontra. Primerako uda darama Etxarrengoak, Gasteiz eta Bilboko Torneoko txapelak jantzi baititu. Gaur Lekeitioko Sanantolinetako Torneoari ekingo dio, Irribarria bikote duela.

Aurreko urtean lesionatuta ibili zen Jose Javier Zabaleta pilotaria eta, tartean, udako torneo guztiak galdu zituen. Baina aurten gustura atera du arantza. Jokin Altuna, Altuna III.arekin bikotea osatuta, Gasteizko Andra Mari Zuriaren Tornea irabazi zuen Zabaletak, Aimar Olaizolaren eta Alvaro Untoriaren gainetik pasa eta gero (22 eta 7), Aspekoak nagusitutako finalean. Bi bikoek Zarauzko Pilota Torneoko finalean elkar ikusi zuten berriz eta partida estu eta lehiatua -9 aldiz berdindu zuten- azkenean 22 eta 18 gailendu ziren Olaizola eta Untoria, errebantxa hartuaz.

Bilboko Torneorako bikotea aldatuzuen Zabaletak eta Elezkano izan zuten bidaide. Gauzak primeran joan zitzaizkien Aspekoei eta larunbatean jokatu zuten finalean, pronostiko guztien kontra, sorpresa eman eta txapela jantzi zuten Zabaletak eta Elezkanok, Olaizola II.ari eta Untoriari 15 eta 22 irabazi eta gero. Atzeko koadroetan Zabaleta nagusitzen joan zen eta aurrean Asperekin estreinatu berri den Elezkano izan zen partidako onena.

Asteartean Donostiako Hiria



Zabaleta eta Elezkano, Bilboko Torneoko txapelak jantzen. Aiol.

Torneoari ekin zion Zabaletak. Atzera ere Altuna III.arekin bikotea osatuta, finalerdian Artola eta Albisu bidean utzi zituzten (22 eta 18). Ez zen partida ona izan, Artolak eta Albisuk sekulako akatsak egin zituztelako eta Zabaleta eta Altuna III.a ere ez zirelako fin ibili. Baina atzo gauean jokatzea zen finalerako sailkatu ziren Aspekoak. Finalerdian Irribarria eta Rezusta bidean utzi zituzten Olaizola II.a eta Beroiz izan zituzten aurkari.

Irribarriarekin Lekeitiokoa lortzera

Guaixeko erredakzioa ixterakoan partida oraindik ez zen hasi ere egin eta emaitzaren faltan, argi

dagoena da Etxarrengo atzelariak bere sentsazioak berreskuratu dituela eta aurtengo udako torneo-otako erregea dela. Donostiako Tornea bukatu berritan, gaur bertan beste txapela bat jantzea izango du buruan, Lekeitioko Sanantolinetako Tornea hasiko baita.

Ia atsedetik hartu gabe, Zabaletak eta Irribarriak bikote ikusgarria osatuko dute. Gaur, ostira-lean, Urrutikoetxea eta Larunbe izanen dituzte aurkari torneooko lehen finalerdian (ETB1, ntb). Bigarren finalerdian larunbatean jokatuko da eta Olaizola II.a eta Albisu Altuna III.aren eta Rezustaren kontra ariko dira. Finala astelehenean jokatuko da (ETB1, ntb).

>>



47. Otadiko Kristo Deuna Txapelketa, abian

Bihar txapelketako lehen finalerdia jokatuko da Altsasuko Burunda pilotalekuan, 22:00etan. Peñas eta Ongay elkarren kontra ariko dira

Bihar, larunbatean abiatuko da Sociedad Deportiva Alsasuak (SDA) antolatutako 47. Otadiko Kristo Deuna Pilota Tornea. Zehazki, lehen finalerdia izango da jokatuko dena. Bigarren finalerdia irailaren 10ean erabakiko da eta finala Altsasuko festetan.

Altsasuko txapelketan afizionatuen mailako puntako pilotariak aritzen dira, sakandarrak tartean. Aurreko edizioan 22 urtez azpiko mailan Laso eta Olaizola izan ziren txapeladunak, Ansa altsasuarrari eta Otaduyri irabazita. Eliteetan Arrietak eta Imazek jantzi zituzten txapelak, Ongai satrustegierra eta Linzoain bidean utzita.

Biharko jardunaldia Etxarri Aranatz, Olazti eta Arbizuko pilo-

47. Otadiko Kristo Deuna Tornea

Lehen finalerdia (larunbatean, 22:00etan, Altsasuko Burunda pilotalekuan)

Esken partida: Mentxaka-Goi-koetxea / Otxoa Petriati

Lau t'erdian: Espinal (Huarte) / Anso (Zugarralde)

Binaka: Iriarte (Buruzgain)-Peñas (Huarte) / Ongay (Irurtzun)-Martinez (Bortziririk)

ta eskoletako pilota partida batekin hasiko da. Ondoren hasiko da txapelketa. Aurten, 22 urtez azpikoak lau t'erdian ariko dira eta nagusien mailakoak binaka. Ongay satrustegierra binakakoan lehiatuko da eta ea, aurreko urtean bezala, finalerako sailkatzerik ote duen.

Mendia



Axio Aranburu gogoan Aralarren

Agorrilaren 8an zendu zen 31 urteko mendizale altsasuarra, Frantziako Alpeetan

Agorrilaren 8an zendu zen 31 urteko Axio Aranburu Zurutuza mendizale altsasuar gaztea, Frantziako Alpeetako Ecrins mendilerroan eskalatzen arizela, 3.500 metroko altueratik erori eta gero. Lagun batekin zegoen Aranburu eta Carre-

glaziarra zeharkatzen ari zirenean erori zen Aranburu, oraindik argitu ez diren arrazoiengatik. Lagunak berehala eman zuen abisua, baina larrialdi zerbitzuak hilda aurkitu zuten gazte altsasuarra.

Agorrilaren 20an, larunbatean, Axiori omenaldia egin zioten Aralarreko San Migel Santute-

gitik gertu. Baiza Parapente Taldeak, Altsasuko rokodromoko eskalatzaileek, Altsasuko Mendi-goizaleak taldeak eta Dantzaleku Sakana Klubeko mendi atalak antolatu zuten ekitaldia. Uharte Arakildik oinez igo ziren San Migelera eta gailurrean aureskua eta lore eskaintza egin zizkieten mendizale gazteari.

Aizkora

Lakuntzan saririk ez

Aizkolar sakandarrak -Resano, Beltza, Gorriti eta Agirre- Euskal Herriko III. Mailako Txapelketako finalerako kanpo geratu ziren

Igandean Euskal Herriko III. Mailako Aizkora Txapelketako bigarren kanporaketa jokatu zen Lakuntzan. 14 aizkolar lehiatu ziren guztira, hiru txandatan banatuta. Bakoitzak lau kanaerdiko erdibitu behar izan zituen eta finalerako hiru txartel zeuden jokoan.

Asier Pellejerok bukatu zituen lanak azkarren (11:04). 20 segundo gehiago behar izan zituen Urteagak (11:24) eta Eneko Saralegi izan zen hirugarrena (11:38). Iban Resano finalerako sailkatzekotan egon zen, laugarrena sailkatu baitzen (11:58). Atzetik sailkatu ziren Patxi Mindegia (11:40), Goizeder Beltza (12:01), Gorriti (12:38), Kintana (12:46), Olasagasti (14:12), Oregi (14:40), Otaegi II.a (15:18), Garcia (17:05), Agirre (19:04) eta Intxausti (19:12). Sakandarrerak -Resano, Beltza, Gorriti eta Agirre- ez zuten finalerako sailka-



Resano eta Mindegia, Lakuntzan.

tzea lortu.

Bestalde, Nafarroako II. Mailako kanporaketa 10 aizkolarik hartu zuten parte eta lehenengo bos tek lortu zuten Etxarri urriaren 2an jokatuko den finalerako txartela. Tartean dago Iban Resano. Juanjo Erdozia eta Goizeder Beltza ez ziren finalerako sailkatu.

Txirrindularitza

Iosu Etxeberria NKJ-etako txapelduna

Ailetz Lasak txapelketako tartekako helmugak irabazi ditu

XXVI. Lakuntzako Saria-Sakana Fundizioa Sari nagusia jokatu zen asteartean, kadeteen mailako proba (60 km). Lizarragako kateak erabaki zuen lasterketa. Arabarrak taldeko Jokin Murgialdai bakarrik iritsi zen helmugara (1:26:29). 5 segundo atera zizkion mendiko proba irabazi zuen Vive taldeko Pablo Castrillori eta 22 segundo El Proex-Iturriberoko Ibai Ruiz de Arkauteri. Quesos Albeniz taldeko Ailetz Lasa izan zen lehen sakandarra, 9. postuan eta Intersport Irabiako Josu Etxeberria 10.a, biak 1:12ra. Quesos Albeniz taldeko Unai Villalobosek –sailkapenean 13.a, 1:20ra– tartekako helmugan txapelketa irabazi zuen, Intersport Irabiako Jon Gil –sailkapean 39.a, 6:16ra– izan zen probako lehen lakuntzarra eta probako talde onena Ciclos Lizarra-Irisarris izan zen. Emakumezkoetan Caf Transport Engineering taldeko Amaia Lartitegi gailendu zen.

Sakanako taldeetako gainontzeko txirrindulariei dagokienez, Beñat Etxezarreta 15.a iritsi zen, Jabier Mitxaus 18.a, Imanol Galarza 23.a, Marcos Pison 26.a, Jon Gil 39.a, Iosu Jaka 40.a, Urko Gorriti 44.a eta Unai Lizarraga 51.a.



Lakuntzako podiuma. Ezkerrean, goian, Ailetz Lasa eta Josu Etxeberria.

Etxeberria lehena eta Lasa bigarrena

Lizarra, Villatuerta, Undiano eta Tafallako lasterketen ondoren, Lakuntzako lasterketak erabaki zuen kadeteen mailako Nafar Kirol Jolasen Txapelketa (NKJ). Intersport Irabiako Josu Etxeberriak irabazi du txapelketa (117 puntu), denboraldi bikaina egin eta gero. Mendiko maillota ere jantzi zuen Etxeberriak. Bigarrena Quesos Albeniz taldeko Ailetz Lasa izan da (113 puntu). Lasak NKJ-tako tartekako helmugan txapelketa irabazi du.

Maiza, Etxeberria, Riaño eta Izquierdo Espainiako Txapelketetara

Asteburuan Espainiako Juniorren Mailako Txapelketak jokatu dira. Burunda klubetik Nafarroako selekzioarekin arituko dira Xabier Maizalazakuntzarra eta Asier Etxeberria, eta Errioxako selekzioarekin Juan Riaño eta Daniel Izquierdo.

Bestalde, eskola mailakoak Miranda de Argan eta Lizarran aritu ziren asteburuan.

Lasterketen informazio eta klasifikazio gehiago: www.guaixe.eus

Txirrindularitza



Erbiti Rion, proba hasi baino lehen.

Erbiretaren Olinpiadak

Hiriberrikoak talde lan bikaina egin zuen baina ezin izan zuen proba despeditu. Orain Vueltan dago

Rioko Olinpiadetako txirrindularitza-konkursa proban lehiatu zen Hiriberriko Imanol Erbiti. Movistar Team taldeko txirrindulariak Ion Izagirre, Jonathan Castroviejo, Alejandro Valverde eta Joaquim Rodriguezekin osatu zuen Espainia ordezkatu zuen taldea. Beroa izan zuten arerio nagusi. Imanol Erbitik, liderrendako talde lan izugarria egin ondoren, ezin izan zuen proba bukatu. Greg Van Avermaet belgiarrak lortu zuen urrezko domina. "Purito" Rodriguez bosgarrena sailkatu zen. Orain Espainiako Vueltan dabil Hiriberriko, Nairo Quintanarendako lan bikaina eginen.

Saskibaloia

Bihar 3X3 Saskibaloia Torneoa jokoan

Altsasuko Zelandi kiroldegian jokatu da 3x3 2016 Saskibaloia Torneoa, bihar, larunbatean. Bi maila daude: neskena eta librea.

Hiru hiruren kontrako saskibaloia torneo hartuko du Altsasuko Zelandi kiroldegian bihar, larunbatean. Bi maila izanen ditu lehiaketak, batetik, neskena, eta, bestetik, librea, hau da, mutil edota neskek. Aurretik izena eman duten hirukoek 15 euro ordaindu dituzte, eta egunean bertan izena ematea 20 eurokoa izanen da; kiroldegian egiten da eta 9:30ean itxiko da. Ondoren hasiko da txapelketa Alipendi Araia talde antolatzaileak sartan 300 euro baino gehiago banatuko ditu. Gainera, parte-hartzaileen artean euskal saskibaloia taldeen kamisetan zozketak izanen dira.

Informazio gehiago

Telefonoa (680 385 666) edo Facebooka (Alipendi Araia Baloncesto)



Naiara Diez jokalaria, kartelarekin.

Areto futbol

Los Suaves txapeldun

Taldea Lakuntzako Parkea Martxan Torneoko irabazlea izan da

Larunbatean Lakuntzako Parkea Martxan Torneoko final handia jokatu zen. Isi Team eta Los Suaves taldeen arteko finala oso estua izan zen, eta, azkenean, Los Suaves gailendu zen, 8 eta 9 irabazita. Beraz, Los Suaves izan da aurten txapelduna, Isi Team bigarrena eta Irrikiziyuek hirugarrena, Burutik Jotak taldeari 4 eta 5 irabazi eta gero.

Bestalde, Karrotillorrendako izan da kopa, Tximistak taldeari irabazi eta gero. Guztiek festen hasierako suziriaren ondoren jaso zuten saria. Jokalari onenaren saria Josu Arraizak jaso zuen eta atezain onenaren saria Iñaki Arkauzek, bi jokalariek Los Suaves taldekoak. Torneoarekin batera jokatuak supercrack txapelketako supercrack onenaren saria Gorka Senarrek jaso zuen.



Mendi lasterketak

Beñat Katarain azkarrena Guardetxe Igoeran



Guardetxe igoeran parte hartu zuten korrikalariak.

Zabalartek Lakuntzan antolatutako lasterketan 17 korrikalari lehiatu ziren

Lakuntzako Guardetxe Igoera mendi lasterketako tokia Lakuntza-Aralar mendi lasterketak hartu zuen, garagarrian jokatu den probak. Izan ere, korrikalariendako txiki geratu zen Lakuntzatik abiatu eta Aralarko Guardetxera igo eta jaisteko korrika lasterketako erronka. Baina Lakuntzako

Zabalarte klubak, garai haietako apustueta oinarritutako lasterketa hori berreskuratu du festen hasierarako. Aurten 17 korrikalari animatu ziren proba osatzera, eta Beñat Katarain lakuntzarra izan zen azkarrena (57:23), Aitor Mozo (1:02:30) eta Aitor Hernaiz (1:05:39) lakuntzarren aurretik. Anna Maria Lloveras lehen emakumea izan zen, 9. postuan (1:33:27).

Mendia



Egin beharreko bidea mapan zehazten.

470 korrikalari Aralarren jokatuak orientazio proban

13. European Rogaining Championship txapelketa hartu du asteburuan Aralarrek

Asteburuan Aralarren 13. European Rogaining Championship 2016 Txapelketa jokatu zen. 470 mendi korrikalari hartu zuten parte orientazio proba ikusgarri honetan, nazioarteko onenak tartean. 24 orduko proba gogorra zen eta taldea lehiatu ziren parte-hartzaileak. Hitz gutxitan esanda, antolakuntza aurretik jarritako balizak topatu behar zituzten. 15 kategoriatan jokatu zen proba. Maila absolutuan Rogain and Co frantziarrak nagusitu ziren Open Misto mailan (3.170 puntu) eta Estoniako Genialne Superkonn taldea Emakumezkoen Openean (2.930 puntu). Proba nagusiaz aparte, 6 orduko VII. Rogaine of Navarra txapelketa jokatu zen.

Kiroldegia

Sozarretako xaguzaharrak, txapeldunak

Altsasuko Gazte Asanbladak antolatutako Altsasu Xtrem 3.0 abentura proban gailendu ziren

Agorrilaren 6an jokatu zen Altsasuko Gazte Asanbladak antolatu-

tako abentura proba, Altsasu Xtrem 3.0 abentura proba. Bost talde lehiatu ziren eta mota goizetik gauera bitartean mota guztietako probak gailendu behar izan zituzten. Altxorra bilatzen azkarrena talde gorria izan zen, Sozarretako xaguzaharrak. Eguna borobiltzeko afarian elkartu ziren guztiak.



Areto futbola



Mitxelen omenezko partidari Xota nagusi

Olaztiko Erburua kiroldegian emozioa pil-pilean bizi izan zen larunbatean, Sutegik eta Koxka Tabernak Mitxel Agirre omentzeko antolatutako lagunarteko partidari. Lehen mailan aritzen den Magna Gurpea Xotak gonbita onartu zuten eta Koxka tabernaren kontra arituzen. Bukarera 9 eta 1 irabazi zuten Irurtzongo taldeak, baina hori gutxienezkoa izan zen. Kontua osasun arazoak izan dituen Mitxel Agirre olaztiarra omentzea zen.

Mitxel Agirrek areto futboleko ibilbide luzea egin du, jokalaria eta entrenatzaile lanetan. Tartean, Koxka tabernako jokalaria ere izan da. "Omenaldi polita izan da, emozioz betetakoa, eta tarte batean jokatzea ere animatu zen Mitxel. Halako zerbait merezi zuten, handia baita, borrokalari. Milesker Sutegiri omenaldia antolatzeagatik eta Xotari bertan parte hartzeagatik" adierazi dute Koxkakoek.

Futbola



Partida baino lehen Javier Bakaikoa zena omendu zuten. ETXARRI FUTBOL TALDEA

Osasuna eta Eibarren ikuskizuna

Osasunako lehendakari ohi izandako Javier Bakaikoa Martich etxarriarra omendu zuten Etxarrin jokatutako lagunarteko partidari

Etxarri Aranatz futbol klubak lehen mailako futbol partida antolatu zuen agorriaren 12an San Donato zelaian. Osasuna eta Eibar lehiatu ziren, Osasunako lehendakari ohi izandako Javier Bakaikoa

ko Martich etxarriarra omentzeko Etxarri klubak antolatutako lagunarteko partidari. 2.500 lagun inguru bildu ziren partida ikustera eta ETBk eskaini zuen zuzenean. Partidari 0 eta 1 irabazi zion Eibarrek Osasunari. Etxarri klubak bi taldeen esker ona jaso zuen eta Udalak emandako laguntza eskertu zuen.

Bestalde, aipatzekoa da Etxarriko festetan jokatutako Osasuna Fundazioko 3x3 Futbol Plazan 90 neska-mutiko lehiatu zirela.

Futbola

Emakumezkoen futbol eguna

Sociedad Deportiva Alsasuak (SDA) emakumeen futbola sustatzeko emakumezkoen futbol eguna antolatu zuen. Tartean puntako futbol partidari jokatuzuten emakumezkoen Osasuna taldea desegin ondoren sortutako Mulier taldeak eta Athleticce. Azken hauek nagusitu ziren, 1 eta 3. Dantzalekun jendetza bildu zen partidari jarraitzera. "Oso pozik gaude. Babesleak, zaleak, futbolariak... bikain aritu ziren. Halako ekitaldiekin Sakanako neskek futboleko aritza bulkatu nahi dugu. Uste dut pixkanaka lortzen arigarela" adierazi du SDA-ko Gorka Paskuak.

Txikien Futbol 8 mailarako neskek behar dira

Txikien mailako Futbol 8 mailan 11 taldekide daude, eta 2002-2006 urteen artean jaiotako neskek behar dituzte. "Maalen Beraza eta Ane Cantero izango dira entrenatzaileak. Izena emateko epea zabalik dago eta ea neskek animatzen diren" animatu du Paskuak.



Athletic eta Muries taldeko jokalaria, elkarren artean agurtzen. GUZMAN

Altsasu seniorren debuta



Altsasu emakumeen erregional mailako taldeak 25 kide ditu eta bi taldekideak bi aste darmatzate entrenatzen, Asier Arregi eta Endika Mendinueta entrenatzaileen aginduetara. Asteazkenean debutatu zuten taldeak Uharte Arakilen eta 4 eta 5 galdu zuten Itaroa Huarteren kontra. k. Altsasuko golak Ekiñe Razkinek, Irati Igoak, Ane Lizarragak eta Amets Oteiza uhartearrak sartu zituzten.



Osasunako Martin eta Oier Lakuntzan

Lakuntzako Osasunako zaleek gonbidatuta, Lakuntzako zapia eta plaka jaso zuten opari eta zaleekin bazkaldu zuten

Asteartean Osasunako Lakuntzako zaleek Osasunako entrenatzaile Martin Monreal, Osasunako jokalaria Oier Sanjurjo eta Osasunako jokalaria ohi Bikuña -Osasunako egungo atezainen entrenatzailea- eta Ibañez -Osasunako egungo ordezkaria- gonbidatu zituzten festetara. Talde argazkia atera zuten guztiek eta Lakuntzako zapia jaso zuten opari Osasunakoek. Herriari buelta eman ondoren, jubilatuen elkartean bazkaltzera bildu ziren guztiak, 60 pertsona inguru.

Egun berean Athleticceko Lakuntzako zaleak bazkaltzera bildu ziren, azken urteetan ohi bezala.

Ekitaldiko argazki galeriak: www.guaixe.eus



Goian, Osasunako zaleak Martinekin eta Oierrekin. Behean, Athleticceko zaleak.



Empieza por la E

¿Qué es aquello cercano, afectivo, práctico, lleno de valores y beneficios, transmitido en la infancia o adquirido en edad adulta, que provoca complicidades, emociones y sentimientos positivos y cuyo uso genera disfrute y satisfacción facilitando nuestra socialización?

Eeee
eee
...

¡Esta Claro! Argi dago!
euskara!

MATRICÚLATE

Más de 30 euskaltegis en toda Navarra
30 euskaltegi baino gehiago Nafarroan

Antolatzaileak/Organizan:
Entidades locales con servicio de euskera
Euskara zerbitzua duten toki entitateak

Landa artea Aralarren

Landa artea: naturak emandako materialekin naturan bertan egindako arte eskuhartzea da. Horrela laburbildu daiteke landa artea dena. Natura kaltetu dezakeen inolako materialik ezin da erabili; sokak eta gutxi gehiago. Cristina eta Marta Diego ahizpa altsasuarrak landa arte ikastaroa antolatu zuten joan den astean, astelehenetik ostegunera. Martak esan digunez, "lanagatik, jendearengatik... guztiz liluratuta" bukatu du ikastaroa. Ikastaroaren antolakuntzak lan handia eskatu die "baina merezi du! Parte-hartzaileek esker ona azaldu digute. Pozgarria da hori ere."

Orain natura beste begi batzuekin ikusten dutela aitortu digu. Parte-hartzaile gehienak lore-saltzaileak ziren eta "dekoraziorako jorra dugu. Ikastaroak erakutsi digu landa artea ez dela dekorazioa. Desberdina da. Bestelako teknikak ikasi eta bestelako sentipenak jaso ditugu." Ikasitakoa erakuslehoan aplikatzeko edo ideiak sortzeko balio diela aitortu du Martak, "ez da erraza, baina balio dezake". Hurrengo ere buruan dute. Martak: "ikastaroa baino gehiago dakigunon topaketa litzateke, Urban edo San Pedron, agian."

Landa artearen prozesua

Lehenik, parte-hartzaileetako batzuen ostatu zen Irañetako Bategi landetxean Jordi Pascualek, lore-arteko irakasleak, landa artea zer den eta nola lantzen den azaldu zien. Irrikitan zeudenez, aste-



lehenen arratsaldean bertan Aralarra igo ziren. Guardetxearen eta Albi zelaiaren inguruan Pascualek "natura sentitzeko, hartan murgiltzeko, eta horrela naturak esaten ziguna jasotzeko. Horren arabera, bakoitzak betetzen gintuen eta gustatzen zitzaigun espazio bana aukeratu genuen."

Bakoitzak toki bat aukeratu zuen. Baina izan zen toki bera gogoko zutenak eta elkarrekin lan egitea erabaki zuten. Behin tokia aukeratuta, tokiaren eta zuten ideien zirriborro bana egin zuten. Martak bere lanaren adibidea jarri digu: "toki batean ildo bat eta zulo bat ikusi nituen. Zuloak ildoak eraman zezakeen ur gutzia tragatzen ari zela iruditu zitzaidan." Gauza bera sentitu zuen Kar mele Yeregik. Elkarlanean lurrak zurrupatuko zuen adarrez eta enborrez egindako espirala egin zuten. "Zulo barrura doan indar hori eman nahian enborrak

jarri eta jarri aritu ginen, baina ez genuen nahi genuen sentsazioa lortzen." Irakaslearen aholkuei jarraituz, "makila gutxiagorekin sentsazioa askoz hobe lortzen zela ikusi genuen." Horrela sortu zuten *Del infinito al infinito* obra.

Horrekin batera, Albikozelaiaren beste bi lan ikus daitezke. Marga Garraldak botatako plastiko pila ikusi zituen eta horrek sortutako egonezak makila lehorrak lurrean sartzeraren eraman zuen, erdian harri bat zintzilikatuta. "Horrela segituz gero, zuhaitzak horrela bukatuko dute. Heriotza sentsazioa" eman nahi izan zuela azaldu digu Martak. *Mad Max* izena du obrak. Aralarren asteburuan orientazio proba egin behar zenez, antolakuntzak dominak jartzeko zer bait egitea eskatu zieten. Enbor batzuekin eta domina moduan moztutako enborzatiekin osatu zuten hura.

Ikastaroan egindako gainontzeko hiru lanak guardetxe ingu-

ruan egin ziren. Bizuhaitzen artean enborrak jarrita *Horma* lana sortu zuen Eguzki Lopetegi lakuntzarrak; lerro zuzenekin lan egin zuen. Aurreragoko toki batean zuhaitzei zainak falta zitzaieela sentitu zuten Tere Rocak eta Cristina Ruizek eta adarrekin zuhaitzen zainak sortu zituzten "Lurra kendu dutela eta benetako zainak direla dirudi." Lanak *Sustraiak* izenburua du.

Guardetxe inguruan dagoen harresia baliatuta, ondoan dagoen trikuharriaren mundu magikora sarbidea egin nahi izan zuten. Arku modukoa da *Atea* obra, Cristina Diegok, Marian Larrayozek eta Arantza Ibañezek osatu zutena. Ondoan dagoen trikuharriaren mundu magikora sarbidea izan nahi du. Obra guztiak behin behinekoak dira, eguraldiak eta jendeak haiekiko duen errespetuaren arabera gehiago edo gutxiago iraunen baitute. +www.guaixe.eus

Oporretako argazkiak gurean partekatzeak saria du

Irailaren 9ra arteko epea duzu zure oporretako argazkia www.guaixe.eus bidez lehiaketara aurkezteko

Han edo hemen oporretan egonda, berdin urruti edo gertu, ziurrenik argazki kamera edo telefono mugikorra aldean zenuela. Ziurrenik oporren oroigarri diren argazkiak ere atera dituzula. Haietako bat, zuri egoki iruditzen zaizuna, gurekin partekatzen baduzu sari bat eskuratu dezakezu. Izan ere, Guaixek bigarren urtez udako argazki lehiaketa antolatu du.

Lehiaketara argazkia bidali nahi duzula? www.guaixe.eus web orrian udako argazki lehiaketarako propio sortutako atalean sartu besterik ez duzu. Parte-hartzaile bakoitzeko gehienez bost argazki onartzen dira. Sakandarrak argazkiak bidali ahala web orrian kargatzen dira. Dagoeneko hainbat ikusgai daude. Bi sari izanen dira. Bata epaimahaiak emandakoa eta bestea web orriko erabiltzaileen bozkekin aukeraturakoa. Horretarako aukera 9tik aurrerako hamar egunetan izanen da. Animatu eta zure oporretako argazkiak partekatu. Saria izan dezakezu!



bazterretik

Izaskun Beunza

Luis Barragan, arkitektura baino haratago

Hormen lodiera, kolorea, eskala, eguzkiaren dinamika, bizitzaren zentzuaren inguruko hausnarketan erakitako espazioak, Luis Barraganen arkitekturaren elementuak baino gehiago dira. Hasiara batean ondare iraunkor baten osagaiak dira, moda, ehungintza eta goi mailako jostuntza mundutik urrutidatzen. Barraganen arkitekturaren nabarmena den zentzumenen gorespene bilaketa ardatz hartuta, azkeneko hilabeteetan arkitektoaren izenak pasareletara indartsu egin du salto.

Haren arkitektura moda diseinu berezi batean eman da ezagutzera, eta ehungintza enpresa garrantzitsuenek arkitektoaren obraren irakurketa mistikoa inspirazio hartuta sortzen dituzte euren bildumak, non, forma geometriko puruen eta oinarritzko koloreen erabilera, testura eta bereziki emozioen bilaketa dira ezinbesteko osagaiak. Arkitektomexikarraren erakuntzak oinarri hartuta sortutako disenatzaile ezagunen lan bildumetako batzuk:

1. **LOUIS VUITTON:** Louis Vuittonen 2016 udaberri-uda kanpaina arkitekto mexikarraren "Cuadra San Cristóbal" obran inspiratzen da. Arrosa koloreko horma leun eta altuek,



jantzi futuristez betetako bilduma monokromatikoko partikularra sortu

dute. Arkitekturaren erabilitako kolore eta eskala jokoan adierazpena da kanpainaren helburua.

2. **DANIEL ESPINOSA:** Diseinatzailer mexikarrak arkitektoaren obraren geometria puruak erabili ditu Mexican Geometry bilduma sortzeko. Lerro zuzenak eta kolore biziak, minimalismoa goraituz.

3. **KRIS GOYRI:** 2015 udazkenanegua bildumaren izena "Barragan" da. Kanpainak arkitektoaren lan adierazgarrienak omendunahi izan ditu, non oinarritzko patro geometrikoak eta mozketa garbiak erabiltzen diren.

4. **THOMAS PINK:** Gainjarritako kolorezko planoen bitartez Barraganek erakuntzetan lortzen duen

jolas geometrikoaren imitazio dira disenatzaile britaniarraren 2016 udazken-negua bildumarako proposatutako jantziak.

5. **JESUS IBARRA & BERTHOLDO ESPINOZA:** Disenatzaileek Torres de Satellite eraikina omentu nahi izan dute euren bildumaren lehendabiziko 5 jantzietan, non, soinekoei eraikuntza baten zutabe itxura eman dieten. Del Pozo, Long Champ, Fred Allard para Nine West, Alfredo Martínez edota Akris disenatzaile ezagunen kanpainetan ere arkitektoaren lanak eragin nabarmena izan du. Arte konposizio bakarrean, bai soinean baita kaleetan ere, kontuan hartzeko sortze-lan guztiz interesgarria.

Erkudengo Amaren Holandako esperientzia

Altsasuko abesbatza agorriaren 22tik 29ra Europa erdialdean izan da. Holandan bi kontzertu eman eta beste hainbat emanaldi eskaini dituzte

Holandarra da Erkudengo Ama abesbatzako kideetako bat, Ada Kruijer. Hark sorterrian kantatzeko aukera mahaigainean jarri zuen eta bere bidez bi kontzertu lotu zituzten. Abesbatzako kide guztiek ezin izan zuten joan, 30 bai, eta Iñaki Zelaia eta Juli Alvaro batu zitzaizkien bidaiarako. Schagen hirian eman zuten aurreneko kontzertua, agorriaren 25ean. Dantza eta kanta ardatz zuten folklore jaialdia, artisauek eta tokiko produktuen azoka hartu zuten egun hartan hiriak. Emanaldiaren aurretik parte hartu zuten dantzariak eta abeslariak kalejira egin zuten. Erkudengo Amako kideak, Euskal Herriko jantziak soinean, kantuan egin zuten bidea. Plaza nagusian, folklore ikuski-



zuna dantzariak zabaldu zuten eta gero Altsasuko abesbatzaren txanda izan zen. Kanean kantatzeko egokiak ziren eta euskal kanten sorta bat eskaini zuten. Emanaldia *Aurrekuarekin* kantatuz hasi zuten.

Bi egun geroago Amersfort hirian, De Nieuwe Ervenen, izan zen bigarren kontzertua, arratsaldean. Goiza Holandako Hallehuiskoor abesbatzako kideekin eman zuten. Joko eta kantu bidez elkar-

ezagutzeko aukera izan zuten. Ondoren iritsi zen emanaldia, holandarrek kantu batekin zabaldu zutena. Okasiorako ikurrinaren kolorez jantzita azaldu ziren, bisitariari kidetasuna azaltzeko.

Ondoren, euskal jantzi tradizionalak soinean, altsasuarrek berriro ere kantu eta dantzarekin, *Aurrekuarekin*, zabaldu zuten. Segituan hainbat kulturatako kantak eta euska kanten sorta bat eskaini zituzten.

Emanaldi gehiago

Aipatu kontzertuez aparte, Erkudengo Amako kideak eta laguntzaileak (20) hainbat hiri eta herri bisitatzeko aukera izan zuten. Haiekan kantuan izan ziren, esaterako, Amsterdamgo katedral katoliko eta protestante banatan, Gand Genteko katedralean, zenbait plaza eta auzoetan. Jendearen ikus-

minasortuzuten emanaldi horiek.

Abesbatzako kideen helburua euskal kultura eta tradizioak ezagutaraztea izan da eta, antza, lortu dute "gure identitateaz harro gaudela eta lurraldeko bestiak bihotzarekin kantatzen ditugula sentitu zutela esan ziguten batzuk." Hallehuiskoor abesbatzak Euskal Herrira etorri nahi izanez gero, atak zabalik izanen dituela esan digute Erkudengo Amakoek, "haiekin harrera bikaina eta une ahaztezinak bizi genituelako".

Esperientzia "bikainaren" eta Euskal Herriko kulturak Holandan izandako "arrakasta handiaren" ondoren Erkudengo Ama abesbatza Ziurdiko festetako (irailak 11, igandea, 13:00etan), Altsasuko festen aurreko (irailak 11, igandea, 20:00etan), Arbizuko eta Uharteko Arakilgo Zamartze monasterioko emanaldiak prestatzen hasi da.

Ihabarterrak harrera ona izan zuten

Hala jakinarazi digu Jon Barbarin Lisarrik, Ihabarko antzerki tailerreko zuzendariak. *Ihabarterra* antzezlanean Lurra planetaren sorreratik gaur eguneko asmakizunak arteko gauza guztiak Ihabarren gertatu zirela azaldu zuten aktore taldeak. 18 bat aktorek parte hartu zuten agorriaren 20 eta 21eko emanaldietan. Plazan jarritako fardo handi batzuekin pres-

tatu zuten eszenatokia. Antzezlana osatzen duten esketx bakoitza jokatzeko aktoreak publiko artetik edo eszenarioko artetik, izkinetik edo gainetik ateratu ziren. Emanaldia guztien gustakoa izan zen. Barbarinek aurreratu duenez, ez dute emanaldi berririk aurrekusten. Bestalde, Arakilgo Udalak argiztapenerako eta beste emandako laguntza eskertu zuten.



Gerra ondorengo nesken eskola haiena

El florido pensil, niñas; larunbatean, 19:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean

Tanttakak antzerki taldeak gerra ondorengo mutilen eskolen martxa nolakoa zen taulan azaldu zuten *Florido pensil* antzezlanean. Neska-mutilak garai hartan klasean banatuta zeudenez, obra haren arrakastaren ondoren, nesken eskoletan



jazotzen zena taulara eraman du Ttanttakak. Antzezlana berriak gerra ondoko Espainiako hezkuntza sistemaren krudeltasun absurdo eta zentzugabea jasaten duten bost neskatoren egunerokoa kontatzen du. Elena Irueta, Loli Astoreka, Itziar Lazkano, Teresa Calo eta Gurutze Beitia aktoreek jokatuko dituzte paperak, Fernando Bernues eta Mireia Gabilondo zuzendariak gidatuta.

Country eta bluegrass doinuak

Ostegunean, 19:30ean, Etxarri Aranazko plazan

Jo & Swiss Knife boskote iruindarra, 2014ko erdialdetik dabil

elkarrekin. *Music from small pink* diskoa aurkeztuko dute. Amerikako Estatu Batuetako 30. hamarkadako doinuak bai, baina eszenaratzeko freskoarekin. +www.guaixe.eus

BIKAIN
GARAJEA, S.A.L.
948 460 037 Arbizu
948 468 441 Altsasu

Auto berri eta bigarren eskukoak SALMENTA

**Mekanika
Elektrizitatea
Txapa
Margotzea**

JAVIER ZELAIA

**Pintura eta igeltsua
Zaharberritzeak eta obra berria
Barneko dekorazioa
Aurrekontua eskatu konpromezurik gabe**

648 143 615 • ALTSASU

Mank KONTU KONTARI
zer egin liburuekin?
hitzaldi-lantegia
Yolanda Arrieta idazlearekin

Guraso, zaintzaile, irakasle, irakasle-gai, monitore eta liburutegiko arduradunendako

Urriaren leian, larunbatetik, 10:00etatik 13:00etara.
Lakuntzan, Sakanako Mankomunitatearen egoitzan

Umekin liburuak irakurtzean nola jardun eta zer egin azalduko du tailergileak. Bertaratzen direnek haur literaturaren ahozko baliabideak ezagutzeko dituzte modu praktikoan, jokoaren bidez. Haur Literaturako informazio gaurkoa non topatu ere eskainiko da. Lantegian parte hartu nahi dutenek, izena eman beharko dute alde aurretik euskaral@sakana-mank.eus helbidean. Tokiak mugatuak izanen dira. Matrikula 10 eurokoa izanen da.

G

asteko >> : eguraldia

ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria: 5%	euria: 10%	euria: 15%	euria: 20%	euria: 10%	euria: 10%	euria: 10%
Min: 14 Max: 28	Min: 13 Max: 30	Min: 15 Max: 27	Min: 14 Max: 24	Min: 12 Max: 24	Min: 13 Max: 25	Min: 14 Max: 25

: temperatura >>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m ²
Irurtzun	36	11.5	0
Etxarri A.	36.3	8.7	0
Altsasu	33.5	11	2.6
Aralar	26.6	9.1	7.7
Urbasa	31	11	1.5

: ilargiaren aldia >>

ilgora	ilbete	ilbehera	ilberri
9	16	23	1

EGOKI

VENTANAS PVC LEIHOAK

www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

Acrylcolor

SISTEMA BERRIA

KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

Bazkide zozketa

IRAILEKO SARIAK:

1. SARIA:

Ekainberri: 2 sarrera.
Artazako Kanpina: %10eko deskontua.
Aquarium: sarrera bat.
Lacturale: esneki lotea.
Gaztezulo: 3 hilabetez doan.

2.,3. ETA 4. SARIA:

Artazako Kanpina: %10eko deskontua.
Aquarium: sarrera bat.
Lacturale: esneki lotea.
Gaztezulo: 3 hilabetez doan.

Ekain berri

AQUARIUM

CAMPING ARTAZA

LACTURALE


GAZTEZULO

>> 11 galdera

Migel Anjel Irurtzun

Ezkila jotzailea

Testua: Maialen Huarte Arano



GORDE ZURE LEKUA 948 564 275

Sakanako gida

2017

BADATOR

101
40 017
8 464 036
948 562 509
948 460 141
948 460 004
948 464 036
948 500 051
948 562 458
948 576 015
948 562 446
948 464 036
948 562 993
948 467 548

Arakil
Urdain
Ziordia

1. Garilaren 25ean jo zenituen ezkilak. Zergatik?

Igandetan ezkilak jotzera joaten naiz Ihabarko elizara. Meza hasi baino ordu erdi lehenago izaten da. Garilaren 25a jai eguna da Arakilen eta ospakizunekin batera ezkilak ere izan ziren herrian. Orain dela bost urte Arakilgo herri guztietan ordu berean jo genituen ezkilak. Joan den urtean ere jo nituen Ihabarren, eta uste dut jendeari gustatzen zaiola.

2. Zenbat urte dira ezkilak jotzen dituzula?

14 urte nituela hasi nintzen igandetako ezkila-jotzea egiten. Gaztetan, 22 urterekin edo denbora batez utzi nuen, parrandara irteten ginela. Baina gero, berriz ekin nion, dagoeneko duela 25 urte.

3. Ihabarren bazen ohitura ezkilak jotzekoa?

Don Jose Cruz San Juan apaizak jotzen zituen garai batean. Igandetan, 11:30ean errepikak egiten zituen; 11:45ean 'las 23' izenarekin ezagutzen direnak, hau da, hamar toke, beste hamar toke eta hiru gehiago. 11:55ean 'las cinco y una', hau da, bost toke eta bat gehiago. Eta 12:00etan sei toke jotzen ziren meza hastear zela iragartzeko.

4. Bestelako deiak egiteko ere erabiltzen zen ezkila-jotzea.

Gauza asko iragartzeko erabiltzen zen ezkilaren doinua. Auzolanera deitzeko adibidez, herriko zorrak ordaintzeko, sutea baldin bazen, ekaitza zegoenean edo hileta bat iragartzeko ere bai. Hiletaren kasuan, gainera, ezkila tokeen arabera jakiten ahal zen hildakoa gizo-

nezkoa edo emakumezkoa zen, ezkondua edo ezkongabea. Garai hartan gainera, hildakoa etxean edukitzen zuten lurperatu arte. Elizkizunaren egunean, etxetik elizaraino joateko ere ezkila hotsak izaten ziren bide hori 'lagunduta' egiteko. Ekaitza izaten zenean, ezkilak jotzen ziren hodeiak herriatik bidaltzeko. Aralartik Mikel Deuna jaisten zenean ere ezkila hotsak sortzen ziren. Murginduetan zegoelarik, Ihabarko elizan hasten zen ezkila jotzen eta handik herrirainoko bidea ezkila-hotsek lagunduta egiten zuten.

5. 60ko hamarkadan lehiaketak egin omen ziren.

Bi urtez izan ziren txapelketak. 1968an lehena eta 1969an bigarrena. Bi horiek Ihabarren, baina gero beste herri batzuetan ere egin zituzten, Arruazun adibidez. 1968koan jende asko etorri zen herrira, 3.000 lagun inguru. 14 urte nituen nik baina gogoratzen dut. Bi toketan egin zuten lehia. Lehena, derrigorrezko proba bat zen eta bigarrena estilo librean. Ezkila jotzaile asko etorri ziren: Nafarroako herri askotatik, Gipuzkoatik, Bizkaitik, Errioxatik... baita Lizarraga, Arruazu, Uhart-Arakil... Epaimahaia osatzen zutenen artean jende ezaguna ere bazen, Maria Ostiz kantaria kasu.

6. Zergatik iruditzen zaizu deigarria ezkila-jotzearena?

Musika, erritmo desberdinak sortzeko aukera... beti gustatu izan zait. Ezkila jotzen erritmo desberdinak sortu daitezke eta nik estilo librean jotzen dut. Ohitura dexente galdu da, baina, zenbait

herritan oraindik asko mantentzen da. Urtero, Amurrión gelditzen gara ezkila-jotzaile ugari.

7. Ihabarko kanpai-dorreko erlojua ere zuk daramazu.

Astero eman behar zaio korda, bestela gelditu egiten da. Igandetan ezkilak jotzera etorri eta korda ematen diot. 1930. urtekoa edo izanen da erlojua.

8. Ihabarko kanpaidorrea, nolakoa?

Bi kanpai ditu. Bata handiagoa da bestea baino, eta batek doinu baxuagoa du eta besteak zorrotzagoa.

9. Jendea gustatzen zaio ezkilak entzutea?

Nik uste dut baietz. Askok ez dute jakin zer nolako tradizioa dagoen horren atzean. Orain, igandetan eta gutxi gehiago jotzen da. Niri iristen zaizkidan iritziak beti dira positiboak.

10. Egun batean huts egiten baduzu, jendea ohartzen da?

Ihabarren haizeak jotzen duenean oso gogor jotzen du. Egun horietako batean, igandeari tokatzen denean, nik ezkilak jo eta gertatu zait herriko bizilagun batek galdetzea, ia zergatik ez dudan ezkilarik jo. Egunen batean jo gabe gelditu banaiz beste bizilagun batek jotzen du.

11. Hurrengo ezkila jotzea noiz?

Igandero egiten dut, baina etzikoa agian, luzexegoa izanen da. Herriko jaiak izanda, zerbait desberdina egitea gustatzen zait. Hori ere, segun eta nola sentitzen naizen. Aldatu egiten da norberaren egoerarekin batera.